

EUSKAL IDAZLEAK



"SANCHO EL SABIO" KOADERNOAK

EUSKAL IDAZLEAK



"SANCHO EL SABIO"
KOADERNOAK

Textua: Gorka Aulestia
Euskal itzulpena: Koldo Biguri
Diseinua: Antonio Ciprés
Argazkia: Miguel Angel Quintas
Irudi eta Argazkiak: Fundación Sancho el Sabio
Editorial Auñamendi
Joan Mari Torrealdai
Gorka Aulestia



© Fundación Caja Vital Kutxa, 1996
Argitara: Fundación Sancho el Sabio
Paseo de la Senda, 2
01007 VITORIA-GASTEIZ
Tel. (945) 14 78 00
Fax (945) 14 00 91
I.S.B.N. 84-920813-4-1
D. L. VI-511/96
Imprimatu EVAGRAF, S. Coop.



AURKIBIDE

1. Hizkuntza eta Ahozotasuna

1.1. Euskara: Euskal Literaturaren Lanabes	4
1.2. Euskal Literaturaren Bereizgarriak	4
1.3. Ahozotasuna. Herriaren Ahozko Literatura	5
1.4. Euskal Ahozko Literatura. (I) Bertsolaritza	6
1.5. Euskal Ahozko Literatura. (II) Herri-Antzerkia: Pastoralak	8
1.6. XVI. Mendeko Ahozko Herri-Literatura. (III) Kantu Zaharrak	9
1.7. Ahozko Herri-Literatura. (IV) Atsotitzak (XVI. Mendea)	10

2. S. XVI - S. XIX. Olerki eta Hizlaur Erlijiosoak

2.1. XVI. Mendea. Euskal Literatura Idatziaren Sorrera. Errenazimendua	11
2.2. XVI. Mendea. Prosaren Sorrera. Lapurtera Preklasikoa	12
2.3. XVII. Mendea. Literatura Erlijioso eta Aszetikoa. Lapurtera Klasikoa	12
2.4. XVII. Mendea. Sarako Eskola. Prosa Aszetikoa	13
2.5. XVII. Mendea. Atsotitzak eta Poesia	14
2.6. XVIII. Mendea. Iparraldeko Euskal Literatura. Lapurtera Postklasikoa	15
2.7. XVIII. Mendea. Larramendi Aurreko Idazleak. Euskal Antzerkia	16
2.8. XVIII. Mendea. Euskal Antzerkia. X. Munibe	16
2.9. XVIII. Mendea. Euskal Hizkuntzalaritza eta Literatura. M. Larramendi eta haren Jarraitzaileak. Literatur Gipuzkeraren Sorrera	17
2.10. XIX. Mendea. Prosa Narratiboaren Sorrera. Literatur Bizkaieraren Sorrera	18
2.11. XIX. Mendea. Euskal Dialektologia. Louis Lucien Bonaparte eta haren Laguntzaileak	19
2.12. XIX. Mendea. Alegigileak. Prosa Profanoa	20
2.13. XIX. Mendea. Euskararen Apologistak	20
2.14. XIX. Mendea. Literatura Erlijiosoa Gipuzkoan	21
2.15. XIX. Mendea. Lore-Jokoak	22
2.16. XIX. Mendea. Euskal Kazetaritzaren Hasiera	23
2.17. XIX-XX. Mendeak. Euskal Antzerkia. Donostiako Taldea	24

3. S. XX. Literatura Abertzalearen Hasierak

3.1. XIX-XX. Mendeak. Euskal Literaturaren Instituzionalizazioa. Aurre- Abertzaletasuna eta Euskal Literatura bi mende artean	26
3.2. XX. Mendea. Eusko Ikaskuntza (1918) eta Euskaltzaindia (1919)	27
3.3. XIX-XX Mendeak. Euskal Elaberriaren Jaiotza	28
3.4. XX. Mendea. Aldizkariak: Riev, Euskal Esnalea, Euskerriaren Alde, Argia, Zeruko Argia	28

4. S. XX. Guda Zibila Aurreko Literatur Bizkundera

4.1. XX. Mendea. Euskal Literatur Bizkundera Espainiako Gerra Aurrean	30
4.2. XX. Mendea. Modernotasunaren Bideak. Poesia Lirikoa	30
4.3. XX. Mendea. Poesia Modernoa	31
4.4. XX. Mendea. Poesia Erlijioso Lirikoa eta Epikoa	32

5. S. XX. Kanpo eta Barruko Erbestearen Eginiko Euskal Literatura

5.1. XX. Mendea. Atzerrialdiko Euskal Literatura (1936-1975)	34
5.2. XX. Mendea. Gerra Ondoko Belaunaldia. Kultur Erresistentzia (1936-1975). (I)	35
5.3. XX. Mendea. Gerra Ondoko Belaunaldia. Kultur Erresistentzia (1936-1975). (II)	35
5.4. XX. Mendea. Gerra Ondoko Belaunaldia. Kultur Erresistentzia (1936-1975). (III)	36
5.5. Aldizkariak: Eusko-Gogoa, Egan	37

6. S. XX. Gaurko Euskal Literatura

6.1. XX. Mendea. Idazle Heterodoxo eta Hausturazaleen Belaunaldia	38
6.2. Euskara Batua. Arantzazu, 1968	39
6.3. Nobelaren Garai Modernoa: Gai eta Teknika Berriak. Existentialismoaren eta "Nouveau Roman" delakoaren eragina (1957-1964)	40
6.4. Poesia Sozial Postsinbolista	40
6.5. XX. Mendea (1976tik Aurrera). Euskal Literaturaren Burujabetzaren Bila. (I)	43
6.6. XX. Mendea. Euskal Literaturaren Burujabetzaren Bila. (II)	43
6.7. XX. Mendea. Euskal Literaturaren Burujabetzaren Bila. (III)	44
6.8. Euskal Literaturaren Historiografia (I)	45
6.9. Euskal Literaturaren Historiografia (II)	45

Beste Zenbait Euskal Idazle

Bibliografia	48
--------------	----

Jesús Olaizola Jaunari



1. HIZKUNTZA ETA AHOZKOTASUNA

1.1. EUSKARA: EUSKAL LITERATURAREN LANABES.

XVI. mende erditsutik (idatzizko literaturaren hasieratik) XIX. mende erdira arte, oso idazle laiko gutxi agertzen dira euskal literaturari buruzko historia liburuetakoko egileen artean. Euskal idazle gehien-gehienak elizgizonak izan ziren, batez ere erlijio-gaiak jorratu zituztenak.



Euskal literaturari buruzko erakusketa honen atarian, haren lanabesa aurkeztu beharra dago: euskara; izan ere, neurri handi batean, euskal literaturaren historia euskararen beraren historia da, euskaldunen berezko hizkuntzarena, alegia. Euskara gaur egun Europa mendebalean bizirik dirauen hizkuntza ez-indoeuropar bakarra da, eta 700.000 hiztun inguru ditu. Gainera, hizkuntza gutxiengotu edo minorizatua da, eta euskalki edo dialektotan banatuta dago; bi hizkuntza indartsuk (gaztelera eta frantsesak) egiten dioten presio diglosiko handiaren menpean bizi da, eta idatzizko forman oraindik batasun bidean dago. Erdi Aroaz geroztik, euskara ahulduz joan da bai iparraldean, bai hegoaldean ere. Dena dela, ordura arte, zazpi euskal herrialdeetako hizkuntza nagusia izan zen, eta Errioxa eta Burgosko iparrera ere zabaldu zelarik, baina Bizkaiko mendebaleko Karrantzara iritsi gabe. XVIII. mendean, euskara Arabako zati handi batek galdu zen, eta beste horrenbeste gertatu zen ondoko mendean Nafarroan, bi karlistaden eraginez. Galera honen arrazoiak honako hauek izan ziren, besteak beste: euskaldun askok (bizi-maila handieneko klaseek, batez ere) historian zehar izandako axolagabekeria, betidanik euskara eskolatik kanpo geratu izana, Espainiak eta Frantziak egindako zapalkuntza politikoa, etorkinen mugimendu masiboak (mende honetan batez ere), eta administrazio publikoan euskara eguneroko tresna bezala inoiz ere erabili ez izana, ezta biztanle gehienek ohiko hizkuntza zen garaian ere. Dena dela, azken bi hamarkada hauetan, Franco garaia hil zenetik, egoera dextente hobetuz joan da, eta itxaropen izpi bat ikus daiteke orain euskararen historiako ilunbeen artean.

1.2. EUSKAL LITERATURAREN BEREIZGARRIAK.

Euskal literaturaren ezaugarri bereziak direla bide, nekez konpara daiteke hurbileko herrietako literaturarekin. Hasteko, euskal literaturan ezin ditugu bereiztu Mendebaleko literatura handietan topatzen ditugun aro desberdinak. Bigarrenik, euskal literatura hizkuntzaren beharren arabera garatu zen, eta euskara bera



Erdi Aroaz geroztik, euskara ahulduz joan da bai iparraldean, bai hegoaldean ere. Dena dela, ordura arte, zazpi euskal herrialdeetako hizkuntza nagusia izan zen, eta Errioxa eta Burgosko iparrera ere zabaltu zelarik. XVIII. mendean, euskara Arabako zati handi batetik galdu zen.

eta haren euskalkien aniztasuna izan da protagonista nagusia. Bereizgarri horiez gain, euskal literatura bitan banatuta dago geografiaren aldetik (iparraldekoa eta hegoaldekoa), bi estatu handiren artean zatituta dagoelako; mapa horretan aurkitzen diren desberdintasunak nabarmenak dira literaturan. Adibidez, iparraldeko euskal literatura hegoaldekoa baino bi mende pasa baino lehenago sortu zen. Eta azkenik, euskal literatura erlijioari atxekita dago, gaien aldetik nahiz idazle-en aldetik. XVI. mende erditsutik (idatzizko literaturaren hasieratik) XIX. mende erdira arte, oso idazle laiko gutxi agertzen dira euskal literaturari buruzko historia liburuetakoko egileen artean. Euskal idazle gehien-gehienak elizgizonak izan ziren, batez ere erlijio-gaiak jorratu zituztenak halako asmo didaktiko-izpiritual batez eta, berariaz, literatur alderdiari arreta gehiegirik jarri gabe. Horrela, esaterako, XVI. mendeko euskal literatura 1545eko Trentoko Kontzilioak gomendaturiko Kontrarreforma hasiberriaren eraginez sortu zen (urte horretan bertan argitaratu zen lehen euskal liburua). Jakina da, orobat, XVII. eta XVIII. mendeetako euskal idazle klasiko gehientsuenek oso helburu zehatzak zituztela: fede katolikoa indartzea eta euskararen jatorri zaharra eta edertasuna aldarrikatzea.

1.3. AHOZKOTASUNA. HERRIAREN AHOZKO LITERATURA.

Ahozko eta idatzizko euskal literaturaren tradizioak elkarren ondo-ondoan agertzen dira askotan euskaldunen kultur bizi-tzan. Hala ere, biak ondo bereiztea komeni da, ondo ulertu ahal izateko zer-nolakoa den ahozko literatura eta zer-nolakoa idatzizkoa. Beraien bizitzako gertakari historikoak idatziz jaso zituzten eta, geroago, desagertu ziren beste herri batzuen alderantziz, euskal herriak, bere sustraiak historiaurrean eduki arren, ez zuen idatzi egin zuena, eta bai ordea bestelako ondasun bat utzi ondorengoentzat: haren hizkuntza, antzina-antzinatik bizia, eta ahoz aho iraun duten herri-ohitura batzuk, hala nola bertsolaritza, pastoralak, atsotitz edo errefracuak, baladak, antzinako gerra-kantuak, hil-kantu edo “erri-siak”, kopia zaharrak, maskaradak, toberak, xaribariak, “astolasterrak”, etab. Euskaldunek ahozko adierazpenaren bitartez



Euskaldunek ahozko adierazpenaren bitartez finkatu nahi izan zuten bizitzari buruz zeukaten ikuspegia, eta horri esker bete ahal izan da nolabait idatzizko literaturaren hutsunea: izan ere, hau berandu sortu zen, urria eta kalitate gutxikoa izan zen ondoko herrietako literaturaren aldean.

finkatu nahi izan zuten bizitzari buruz zeukaten ikuspegia, eta horri esker bete ahal izan da nolabait idatzizko literaturaren hutsunea: izan ere, hau berandu sortu zen, urria eta kalitate gutxikoa izan zen ondoko herrietako literaturaren aldean. Bestalde, euskaraz idatzitako literaturak zeharkako eragin soziala baino ez du izan euskaldunen bizitzan, kasu askotan. Aldiz, Koldo Mitxelena maisuaren hitzetan, ahozkoa “beste edozein herritakoa bezain aberats eta anitza da, seguru aski”. Herriak herriarentzat sortutako literatura izan da ahozkoa, ez du egile ezagunik, herri osoa baita egile, eta baserri zaharrek sukaldea eta eliza izan ditu gertaleku. Askok izan dira euskal arimaren literatur adierazkera desberdinak aztertu dituztenak: J.I. Iztueta, F.X. Michel, J. Vinson, J. Jaurgain, G. Hérulle, J.D.J. Sallaberry, W. Webster, R.M. Azkue, Aita Donostia, J.M. Barandiaran, M. Lekuona, J. Riezu, A. Zavala, etab.

1.4. EUSKAL AHOZKO LITERATURA. (I) BERTSOLARITZA.

Bertsolaritza ahozko literatur adierazpen oso berezia da, haren ordezkariak, “bertsolariak” alegia, bat-batean asmatzen dituztelako beraien bertsoak: hori da haren bereizgarri nagusia. Kasu gehienetan, bertsolariak poetak baino areago bertso-gileak dira, eta idatzizko poesia kultuaren maila handia ematen ez badute, hori da bertsolariak bat-batean asmatu beharra duelako, askotan halako epaimahai batek jarritako edozein gairi buruz eta epaimahaiak berak aukeratzen dituen halako doinu, erritmo eta errima batzuen laguntzaz. Hortaz, bertsolaria ez da beste artista batek moldatu duena kantatzen duen abeslari hutsa edo koplari bat, ez eta opera edo antzerkiko interpretea ere (baina artista horiek erabiltzen dituzten elementu batzuk bertsolaritzaren osagai ere badira). Bertsolaria bertso kantatuak bota ahala poesia sortzen duen koplari berezi bat da. Bertsolariak, aspaldikoek batez ere, ez zekiten idazten ez irakurtzen ere, eta beraz liburuak ez ziren haien inspirazio-iturri. Bestalde, bertsolariak ez ditu halako formula metriko estereotipatu eta aurretiaz prestatuak erabiltzen, haren artea irekia eta forma askotakoa baita. Ondorioz, bertsolariaren artelana ez da poeta kultuarena bezain aberatsa izango, ugaritasunari eta logikari dagokienez, baina bai ordea berezkoagoa eta libreagoa. Bertsolariak honako dohainak eduki

Bertsolariak honako dohainak eduki behar ditu, besteak beste: euskara ezin hobeto jakin, oroi-men ona eduki, azkar moldatze-ko gai izan, umore eta ironia handia, belarri fina, nerbioak menderatu eta "tabladu" gainean egoten jakin, proba desberdinetan, ikusleen aurrean.



behar ditu, besteak beste: euskara ezin hobeto jakin, oroimen ona eduki, azkar moldatzeko gai izan, umore eta ironia handia, belarri fina, nerbioak menderatu eta “tabladu” gainean egoten jakin, proba desberdinetan, ikusleen aurrean. Proba horiek, antzina, desafio eta lehiaketa modukoak izan ziren Lore-Jokoe-tan; gaur egungo bertsolaritza gehiena, ordea, herri-festa eta txapelketetan egi-ten dena da. Hona hemen bertsolaririk ospetsuenetako batzuk: F. Amezketarra, “Bordel”, “Xenpelar”, P.T. “Etxahun”, “Bilintx”, “Otxalde”, “Udarregi”, “Txirrita”, P. “Errota”, K. Enbeita, P.M. Otaño, “Basarri”, “Uztapide”, “Xalbador”, M. Lasarte, “Lazkao-Txiki”, J. Lopategi, X. Amuriza, A. Egaña.

1.5. EUSKAL AHOZKO LITERATURA. (II) HERRI-ANTZERKIA: PASTORALAK.

Bertsolaritzarekin batera, pastoral da Euskal Herrian ikusle gehien biltzen duen herri-literatur adierazpena, Zuberoan batez ere, bertan sortu baitzen arte-ikuskizun hau. Pastoral, funtsean, herri-antzerkia da, herriak herriarentzat pentsatzen eta jokatzeko duelako; antzezleak ere herrikoak dira, amateurak. Euskal pastoralak baditu Erdi Aroko antzerkiaren osagai batzuk: poesia eta bertsoak, musika eta kantua, dantza, eta agertokia jartzeko erabiltzen den leku bat, aire zabalean. Antzinako pastoralen gaiak misterio erlijiosoekin eta Erdi Aroko zaldunen balentriekin zerikusia izaten zuten. Aldiz, joan den mendetik hona, pastoralak gizartearen eta kulturaren aldaketa eta baldintza berrietara moldatzen asmatu du, baina bere funtsezko izaera galdu gabe, alegia: bere barne-egitura eta lau puntuko bertso kantatuak. Pertsonaia on eta txarren arteko banaketa eta aurkakotasuna funtsezkoa da antzerki mota zahar honetan. Pasto-ralak hiru zati desberdin ditu: a) sarrera edo “lehen pheredikia”; b) pastoralaren gorputza (zatirik luzeena); eta c) bukaera edo “azken pheredikia”. Denbora igaro ahala, halako aldaketa batzuk nabarmendu dira pastoraletan: gaiak Euskal Herriari buruzkoak izaten dira, doinu batzuk modernoak dira, ikusle gehiago bertaratzen da, antzezleen jantziak ere hobetu dira, tresna elektro-akustikoak erabiltzen dira, testua daukan liburukia argitaratzen da hiru hizkuntzetan (euskaraz, frantsesez eta gaztelaniaz), ikuskizunaren iraupena laburtu egin da, etab. Adibidez, gaiei dagokienez, hasierako Errolan, Karlomagno edo Napoleon bezalakoek lekua utzi diete Zumalakarregi, Iparragirre, Sabino Arana, Jose Antonio Agirre, Xalbador bertsolariari, etab. Hasierako musika-tresna bikoteari (xirula eta danbolinari) beste bost gehitu zaizkio, orkestratxo bat osatuz agerto-ki gaineo balkoi moduko batean, antzezle bakoitzak ekitaldi eta agerraldi desberdinetan jotzeko; eta, azkenik, antzinako zortzi orduko iraupenaren orde, gaur



Bertsolaritza ahozko literatur adierazpen oso berezia da, haren ordezkariak, “bertsolariek” alegia, bat-batean asmatzen dituztelako beraien bertsoak: hori da haren bereizgarri nagusia. Kasu gehienetan, bertsolariak poetak baino areago bertsogileak dira.

Joan den mendetik hona, pastoralak gizartearen eta kulturaren aldaketa eta baldintza berrietara moldatzen asmatu du, baina bere funtsezko izaera galdu gabe, alegia: bere barne-egitura eta lau puntuko bertso kanta-tuak.



egungo pastoralek lau ordu inguru irauten dute. Bestalde, beste garaietan ez bezala, oraingo pastoralen antzezpenean emakumeek ere har dezakete parte. Ez dakigu gauza gehiegirik pastoralen jatorriari buruz, eta adituak ere ez dira ados jartzen. Nolanahi ere, A. Oihenartek (1592-1667) utzi zigun fenomeno honi buruzko lehen aipua.

1.6. XVI. MENDEKO AHOZKO HERRI-LITERATURA. (III) KANTU ZAHARRAK.

Euskararen literatur monumenturik zaharrenak XVI. mendean E. Garibai, Ibargüen-Cachopin, Zaldibia, Lope de Isasti eta beste historialari batzuek jaso zituzten kantu zaharrak dira, XIV. eta XV. mendeetako gertakari odoltsu batzuk (gerrak, hilketak, erreketak, lapurretak, etab.) kontatzen dituztenak. Erdi Aroko Europako beste herri askok bezala, euskaldunek ere gatazka handiko garaiak ezagutu zituzten hainbat urtez, “ahaide nagusien” arteko liskarren ondorioz: banderizoen borrokak izan ziren horiek (oinaztar eta ganboatarrak hegoaldean, agramondar eta beamondarrak iparraldean). Gertakari odoltsu haiek, poeta ezezagun batek ahoz moldatuta, ahotik belarrira gorde ziren belaunaldiz belaunaldi, herri-literatur mota berezi bat osatuz, geroago idatziz ere jaso zena. Zoritxarrez, iritsi zaizkigun testu gehienak zatiak baino ez dira, baina hala ere merezi dute maitasunez gordetzea beraien poesia epikoaren interes historiko, linguistiko eta literarioagatik. Hauek dira aipagarrienak: “Bereterretxeren kanthorea” (XV. mendea), “Aramaio edo Pedro Abendañokoaren erosta” (1443), “Mondragoeko erreketak” (1448), “Beotibarko gudua” (1321), “Urrexola” (XIV. mendea) eta “Olasoren kantua”. Oso interesgarriak dira, baita ere, “Milia Lasturkoa”, “Martin Bañez de Artazubiaga” eta “Beltran de Alos jauna” eresiak. Garibaik, bere *Compendio historial* izeneko obra handian sartu zituen kantu zahar horietako zati batzuk, eta beste asko haren herkide Juan Carlos Guerra (1860-1941) arrasatearraren *Cantares antiguos del euskara* liburuan jasota daude. Ederrenetako eta osoenetako bat “Bereterretxeren kanthorea” da, Erdi Aroko ahozko literaturaren egiazko harribitxi bat, lau mendetan zehar ahoz aho gorde eta 1870ean J.D.J. Sallaberryk jasoa bere *Chants populaires du Pays Basque* liburuan. Hamabost ahapaldiko poema bat da, Bereterretxe gaztea Leringo Kontearen “hirur dozena” soldaduk nola hil zuten kontatzen duena. Hilketak hori Ezpeldoin gertatu zen, Andozeko ibarrean (Zuberoan), eta minduta eta suminduta utzi zituen euskaldun asko. Poema epiko honetan azpimarratzekoak dira kontaketa, elkarrizketak, eta gertakari pertsonaia eta lekuei buruzko deskribapena, bi sekuentziatan kontatua.



Euskaldunen herri-pentsakera ahotik belarrira gorde da belau-naldiz belaunaldi, esaldi pare bateko atsotitz edo esaera zahar moduan, askotan errima eginez, eta euskal ahozko literaturaren altxor aberatsenetako bat osatze-ra iritsi da. Esaera-biltzaile aipa-garrienak, zalantzarik gabe, Esteban Garibai, Jacques de Bela, Bertrand de Sauguis eta Arnaud de Oihenart dira.

1.7. AHOZKO HERRI-LITERATURA. (IV) ATSOTITZAK (XVI. MENDEA).

Euskaldunen herri-pentsakera ahotik belarrira gorde da belaunaldiz belaunaldi, esaldi pare bateko atsotitz edo esaera zahar moduan, askotan errima eginez, eta euskal ahozko literaturaren altxor aberatsenetako bat osatzera iritsi da. Esaera-biltzaile aipagarrienak, zalantzarik gabe, Esteban Garibai, Jacques de Bela, Bertrand de Sauguis eta Arnaud de Oihenart dira. Lehenengoa, **E. Garibai (1533-1599)**, historialari eta Felipe II.aren kronikagile izan zen, Arrasaten jaioa eta bertako alkate izandakoa. Berea da *Compendio historial de las crónicas y universal historia de todos los reinos de España* (Anberes, 1571) liburua, gaztele-raz idatzia; baina bere *Memorias* izenekoan esan zuen bi esaera-bilduma osatu zituela, itzulpen eta azalpenarekin. Zoritxarrez, bi bilduma horietako bakar bat ere ez zaigu iritsi eskuizkributan. Hala ere, Madriliko Biblioteka Nazionalean badago 1854an argitaratutako kodize bat, G139 siglaz erregistratua, E. Garibai-ren euskal atsotitz batzuk dituen. XVIII. mendean erabiltzen zen idazkeragatik ikus daitekeenez, kopia hori ez da XVI. mendekoa, askoz geroagokoa baizik. Beste eskuizkribuzko kopia bat, biblioteka berean Cc.79 siglaz dagoena, B. Maestrek oparitu zion F. Michel euskaltzaleari 1846an. Bi bildumetako esaera zaharrak bizkaieraz idatzita daude, E. Garibairen jaioterrian erabiltzen zen eus-kalkiaz alegia. Bestalde, oso ezaguna da “1596ko esaerategia”, *Refranes y Sentencias comunes en bascuence...* (Iruñea, 1596) izenez ezaguna, eta 64 orritan 539 erretrau biltzen dituen. Van Eys holandarrak aurkitu zuen obra hau 1894an Alemanian. Geroagoko bildumen artean, aipagarrienak B. de Sauguisena (205 atsotitz), J. Bela (1568-1667) zuberotarrarena (45 atsotitz) eta Lope de Isasti gipuzkoarrarena (85 atsotitz) dira.



2. S. XVI - S. XIX. OLERKI ETA HIZLAU ERLIJIOSOAK

Nazio guztiek maite, preziatzen eta ospatzen dute beraien lehen liburua (etxeko lehen umea bezalaxe). Euskal Herrian, ohore hori Bernart Detxepare apaiz behenafarrari suertatu zitzaion, 1545ean bere *Linguae Vasconum Primitiae* argitaratu zuelako Bordelen. Liburua 15 poemak osatzen dute, 21 lerroko hitz lauzko edo prosazko hitzaurre batekin.

2.1. XVI. MENDEA. EUSKAL LITERATURA IDATZIAREN SORRERA. ERRENAZIMENDUA.

Nazio guztiek maite, preziatzen eta ospatzen dute beraien lehen liburua (etxeko lehen umea bezalaxe). Euskal Herrian, ohore hori **Bernart Detxepare** apaiz behenafarrari suertatu zitzaion, 1545ean bere *Linguae Vasconum Primitiae* argitaratu zuelako Bordelen. Liburua 15 poemak osatzen dute, 21 lerroko hitz lauzko edo prosazko hitzaurre batekin. Poema horiek 1.159 bertso dituzte guztira, eta desberdinak dira gai aldetik: batzuk erlijiosoak dira, beste batzuk maitasunezkoak, biografikoak (bat) eta sorterriaren goraipamenezkoak. Lehen zatian (1. eta 2. poemak, 559 bertso) dotrinako gaiak jorratzen dira eta Azken Judizioa aipa daiteke. Bigarrenak (10 poema, 3.etik 12.era) 403 bertso ditu eta interesgarriena da literatur ikuspegitik. Hirugarrena (poema autobiografiko bakarra, 13.a) 102 bertsoz osatuta dago eta beraietan idazleak bere bizitzari buruzko gora-behera batzuk kontatzen ditu; oso interes handikoa da guretzat, oso gutxi dakigulako lehen euskal idazlearen bizitzaz. Azkenik, laugarren zatiak bi poema ditu (14.a eta 15.a, 59 bertsoekin), lehen euskal liburuaren sorrera eta euskararen paregabeko edertasuna goraipatzen dituztenak, gar handiz eta halako doinu errenazentista batez. “Kontrapas” eta “Sautrela” izenburuko bi poema hauek prosazko hitzaurrearen ildo beretik doaz mezu aldetik, euskara baitute gai nagusi. Liburu honeko poema gehienak, estiloari dagokionez “cuaderna vía” delako neurriaz idatzita daude, hau da, lau bertso monorrimikoz eta silaba kopuru berberaz, 8/7tan banatuta. Detxepareren bizitzako garai historikoari gagozkiolarik, eza-guna da Behenafarroan jaio eta Eiheralarreko erretore izan zela. Garaziko lur haiek, Nafarroako erresuma zaharreko seigarren merindadean (gaur egun Behenafarroan), beamondar eta agramondarren arteko liskarren gertaleku izan ziren, eta Detxepare poeta seguru aski arrazoi horregatik egon zen preso, bere poema biografikoan kontatzen duen bezala.



2.2. XVI. MENDEA. PROSAREN SORRERA. LAPURTERA PREKLASIKOA.

Frantzia eta Espainiaren arteko gerretan aitasantuek enperadore espainiarraren aldeko jarrera hartu eta gero, Nafarroako erregina Juana de Albret kalbinismora bihurtu zen, eta berarekin batera beste euskaldun asko ere, gehiengo katolikoaren aurkakotasun sutsuarekin. Erreginak 1559an fede katolikoa arbuiatu eta erreforma kalbinista ezarri zuen bere mendeko lurretan.



Frantzia eta Espainiaren arteko gerretan aitasantuek enperadore espainiarraren aldeko jarrera hartu eta gero, Nafarroako erregina Juana de Albret kalbinismora bihurtu zen, eta berarekin batera beste euskaldun asko ere, gehiengo katolikoaren aurkakotasun sutsuarekin. Erreginak 1559an fede katolikoa arbuiatu eta erreforma kalbinista ezarri zuen bere mendeko lurretan. Paben 1564an ospatu zen sinodo kalbinistak **Joannes Leizarraga** beskoiztarrari Testamentu Berriaren lehen itzulpena enkargatu zion, eta 1567an Eliza Erreformatuko apaiz izendatu zuen. Idazle honek hiru liburu osatu zituen, hirurak itzulpenak, erreginaren kontseiluak eskatu eta ordainduak, eta 1571n argitaratu ziren Arroxelan (La Rochelle): 1) *Kalendrera* edo Pazkoa eta beste jaiegun batzuk zehazteko egutegia; 2) *ABC edo Christinoen instructionea*, kristautentzako dotrina funtsezkoa; eta 3) *Jesus Christ Gure Jaunaren Testamentu Berria*, bere libururik famatuenena. Hiru liburuok, Leizarragak Jainkoaren hitza eta kalbinisten ideiak zabaldu nahi zituen Euskal Herriko zati hartako euskaldunen artean; izan ere, berak “Heuscalduney” izenburuko hitzaurrean dioen bezala: “*ecen heuscaldunac berce natione gucién artean ezgarela hain bassa, non gure lengoagez ecin eça-gut eta laud deçagun gure Iainco iauna*”. Lan honi ekiterakoan (“*cein içan baita nehorc lehen vissitic estima ahal liçaqueen baino handiagoa*”), idazleak bi oztopo handi aurkitu zituen (geroago Axularri gertatu zitzaion bezala), euskalkien arazoa eta euskarazko literatur tradizioz eza, eta “*oraino, translationetan behinçat usatu gabea*” zen euskara mota erabiltzea erabaki zuen. Euskara mota hori lapurtera da nagusiki, baina behenafarrera eta zubererazko hitz eta esamoldeekin aberastua, eta, batez ere, latinetik hartutako hitz arrotz ugari hornitua, jatorrizko ortografia errespetatuz gainera. Leizarragak euskara maisu baten antzera erabiltzen badu ere, estiloa zaila da, kultista, eta ez da erraz ulertzekoa euskaldun gehienentzat. J. Leizarraga aitzindari bat izan zen, bidegile ausart bat, jarraitzaile ugari izan ez dituen.


2.3. XVII. MENDEA. LITERATURA ERLIJIOSO ETA ASZETIKOA. LAPURTERA KLASIKOA.

“Sarako Eskola” edo taldeak buru argi bat eduki zuen: “Axular”. Dena dela, beste idazle batzuk ere egon ziren talde horretan (adibidez, J. Haranburu, Matri, C. Harizmendi, Argaignarats, Hirigoiti, etb.), eta haien artean aipagarrienetakoa **Joannes Etxeberri** teologian doktorea. Axularren garaikide izan ziren arren, haien obra gehienak Sarako apaizaren **Gero** ezaguna baino lehenagokoak izan ziren. Sara Lapurdiko herri txiki bat da, garai hartan balea-arrantzarako

portu ziren Donibane Lohitzune eta Ziburutik gertu dagoena, eta ordura arte ezagutu ez zen bezalako literaturgintza bat bultzatu zuena. J. Etxeberri, Ziburuko erretore eta teologian doktoreak hiru liburu erlijioso idatzi zituen bertsoz. Poesiak irakaskuntzarako eta, orobat, fedearen onerako balio handia zuela eta haren euskal eliztiarrek (haien artean, arrantzale asko zeudelarik) bertsoa eta poesia biziki maite zutela jakinik, hartaz baliatu zen bere apaiz lanetarako. Honako hauek dira haren hiru liburuetakoa izenburuak: 1) *Manual devotionezcoa* (1627); bi zati luzetan banatuta dago eta ia 8.000 bertso ditu: lehen zatian fede kristauaren egiak azaltzen dira, eta bigarrenean gaztelaraz “novísimos” deitzen direnak; 2) *Noelac* (1631), edo gabon-kantak: izen honekin laburtzen da askoz luzeagoa den izenburua. 246 orri ditu eta lau zatitan banatuta dago. 3) *Eliçara erabiltceco liburua* (1636), aurreko biak bezala Bordelen argitaratua, baina berau Bertrand Etxauz Tours hiriko artzapezpikuari eskainia. Gure lehen literatur azterlariak, A. Oihenartek J. Etxeberriren poesiagintzari buruz eginiko kritika batzuetan (“il se donne en plusieurs lieux d’autres licences exorbitantes”) poesiarako baino prosarako dohain hobeak zituela esaten badu ere, “gizon guztiz jakintsu” honen poesia lana erabat goraipagarria da, kantitate zein kalitate aldetik. Oihenarten iritzi batzuekin ados egonda ere, komeni da gogoratzea P. Lafittek Ziburuko poetaren omenez esandakoa: “J. Etxeberrik ez luke inoiz hil behar euskaldunen bihotzean”.

2.4. XVII. MENDEA. SARA KO ESKOLA. PROSA ASZETIKOA.

Idatzizko literatur tradizio faltaren erdian, eta lehenago euskaraz idatzitako libururik apenas zegoela, nabarmen ateratzen da XVII. mendean *Gero* (izenburu osoa *Guero, bi partetan partitua eta berecia* da) liburua (1643), **Pedro Dagerre** “*Axular*” (1556-1644) urdazubitarrena. Liburu zabal honek 60 kapitulu ditu, eskaintza bat, “Gomendiozko karta”, bere babesle Bertrand Etxauz Baionako apezpikuarentzakoa, eta “Irakurtzailleari” eginiko hitzaurre bat; azken honetan, Axularrek euskalkien banaketagatik eta hizkuntza baturik ez egoteagatik aurkitutako arazoak ditu aipagai. Orobat kontatzen du nola hautatua izan zen bera, Sarako taldekideen artean (gehienak elizgizonak ziren), *Gero* idazteko. Nahiz eta liburuaren izenburuak bi parte aipatu (bi liburu egitea zen egilearen asmoa), berez lehena baino ez zen argitaratu, idazlea hil aurreko urtean hain zuzen. Obraren gaia izenburuan bertan adierazita dago. Liburu aszetikoa da erabat, halako irakurle mota jakin batentzat pentsatua: hots, beren salbazioarekiko ardura gerotik gerora uzten duten kristau bekatarientzat; izan ere, idazlearen arabera, beren arima arrisku handian jartzen dute horrela, “gero”



J. Etxeberri, Ziburuko erretore eta teologian doktoreak hiru liburu erlijioso idatzi zituen bertsoz. Poesiak irakaskuntzarako eta, orobat, fedearen onerako balio handia zuela eta haren euskal eliztiarrek (haien artean, arrantzale asko zeudelarik) bertsoa eta poesia biziki maite zutela jakinik, hartaz baliatu zen bere apaiz lanetarako.



Idatzizko literatur tradizio faltaren erdian, eta lehenago euskaraz idatzitako libururik apenas zegoela, nabarmen ateratzen da XVII. mendean *Gero* (izenburu osoa *Guero, bi partetan partitua eta berecia* da) liburua (1643), Pedro Dagerre “Axular” (1556-1644) urdazubitarrarena.

esatea “inoiz ez” esatea bezalatsu delako. Axular Cervantes, Lope de Vega eta abarren garaikide izan zen, eta frogatuta dago Salamancako unibertsitatean ikasi zuela; Espainiako Urrezko Mendean edo Frantziako klasikotasunaren loraldian ohikoa ez den jakintza erakusten du. Axular humanista handia izan zela erakusten digute liburuan sakabanatuta dauden aipu bibliko eta patristiko ugariak, bai eta idazle klasiko greko-latinoen aipamenek ere; begi zorrotzeko gizona zen, natur legeak, neurria, zuhurtzia (baina ez hitz gutxitasuna), ideia zehatzak eta arrazoibideak ehuntzeko gaitasuna maite zituena. Badirudi *Gero* liburuan badagoela Fray Luis de Granadaren *Guía de pecadores* eta San Francisco de Salesen *Filotea* obra klasikoen eragina. Dena dela, Axularren liburua beti izango da euskaldunen literatura erlijiosoaren barruko prosa aszetikoaren obrarik goren.


2.5. XVII. MENDEA. ATSOTITZAK ETA POESIA.

Axularren eta Sarako taldeko elizgizonen ospeak argitzen duen XVII. mendean bertan oso nabarmen geratzen da **Arnaud Oihenart (1592-1667)** lehen idazle laikoa, bere prestakuntza, kultura eta obra idatziengatik. Zuberoako Maulen jaiotako egile honek Bordeleko unibertsitatean ikasi zuen zuzenbidea; bere herrialdeko ordezkari edo diputatu izan zen eta, geroago, Nafarroako Parlamentuko letradua Donapaleun. Oihenart oso gizon ikasia izan zen, polifazetikoa eta humanista, eta bereziki maite zituen historia, poesia landua, euskal errefrau bildumak, euskal gramatika eta lexikografia, legeak, etab. Hainbat hizkuntza zekizkien: euskara, latina, frantsesa, grekoa, gaztelania eta italiera, baina bere lan ugari eta anitza lehen hiruetan idatzita dago. Historiaren esparruan, aipatzekoa da bere *Notitia utriusque Vasconiae tum Ibericae tum Aquitaniae* liburua (Paris, 1638), latinez idatzia eta 600 orrikoa. Mito eta kondairak alde batera utzita (tubalismoa, kanta-brismoa, etab.), euskaltasunaren kontzeptua jarri zuen Euskal Herriaren muin gisa, gaurko zazpi euskal herrialdeen lurralde-batasunean oinarrituz. Bestalde, literatur kritikan, nabarmentzekoa da bere *L’art poétique basque* (1656): bertan,

lehen aldiz, euskal poesia Europako goimailako poesiaren ildoetan sartzeko ahalegina egin zuen, euskal tradizioko neurriak alboratuz. Baina bere obrarik ezagunena *Les proverbes basques recueillis par le Sr. d'Oihenart, plus les poésies basques du mesme auteur* (Paris, 1657) da. Izenburuak berak dioenez, obra hau bi zatitan banatuta dago: lehena, "Atsotizac edo Refrauc" (euskal esaera zaharren bildumarik onenetako bat); eta bigarrena "O. ten gastaroa neurthizetan", euskarazko 29 poemaz osatua. Bi zatietan, oso aipagarria da emakumeari ematen dion tratua (bere emazteari eskainitako bertsoak, adibidez), Petrarca edo Ronsarden kanonei jarraitzen diena, oso positiboa eta edertasun handikoa delako. Oihenartek ez zuen erabili bere jatorrizko euskalkia, nafar-lapurtera baizik, oso garbia eta neologismo edo hitz berri ugarikoa. Estiloari dagokionez, zehatza, kontzeptuzalea eta kulteranoa da beti.

2.6. XVIII. MENDEA. IPARRALDEKO EUSKAL LITERATURA. LAPURTERA POSTKLASIKOA.

Euskal Herriko hegoaldean XVI. eta XVII. mendeetan euskal literaturako ia ezertxo ere argitaratu ez zen bitartean, iparraldean ordea literatur tradizio handia zegoen, Lapurdin batez ere. **Joannes Etxeberri Sarakoa (1668-1749)** euskal literaturako bigarren idazle laikoa da. Medikuntza ikasi eta batez ere hegoaldean aritu zen lanean (Beran, Hondarribian eta Azkoitian). Hiru liburu idatzi zituen gutxienez, eta, gainera, hiztegi lau-eledun bat ere osatu zuen, zoritxarrez galdu zena. Hona hemen bere idazlanak: 1) *Lau urdiri* izeneko opuskulua, 23 orrikoa, nazio hizkuntzak eta Euskal Herrian euskarazko irakaskuntza aldarrikatzen dituen. Esandako hiztegia amaitzeko zorian duela iragarri eta Ustaritze-ko biltzarrari laguntza eskatu zion argitara emateko; tamalez, biltzarrak ukatu egin zion laguntza hori. 2) *Escararen hatsapenak* (1712); euskararen eta haren garbitasunaren apologia da, eta bertan literatur hizkuntza bateratzearen alde mintzatzen da. Axularren dizipulu ona izanik, bere herriko erretore izandakoak euskararen buru eta gidari izan behar zuela dio. 3) *Escual-herriari eta escualdun guztiei escuarazco hatsapenac latin icasteco*; haren esanean, ez da beharrezkoa Euskal Herri-ko alde egitea erromatarren hizkuntza ikasteko, eta horretarako euskaraz idatzi zuen latinen gramatika hau. Estiloari dagokionez, lapurteraz idatzi zuen, eta bere euskarak, Axularrenaren maila ez badu ere, irakurlea harritu egiten du bere dotoreziagatik, azalpenen zehaztasunarengatik eta idazle sakratu zein profanoen aipu ugariengatik.




Axularren eta Sarako taldeko elizgizonen ospeak argitzen duen XVII. mendean bertan oso nabarmen geratzen da Arnaud Oihenart (1592-1667) lehen idazle laikoa, bere prestakuntza, kultura eta obra idatziengatik. Zuberoako Maulen jaiotako egile honek Bordeleko unibertsitatean ikasi zuen zuzenbidea; bere herrialdeko ordezkari edo diputatu izan zen.

2.7. XVIII. MENDEA. LARRAMENDI AURREKO IDAZLEAK. EUSKAL ANTZERKIA.

Oso gutxi dakigu **Pedro Ignacio de Barrutia (1682-1759)** arabarrari buruz; sasiko umea izan omen zen, Aramaion jaioa, eta eskribaua Arrasaten. Bere *Acto para la Nochebuena* lanagatik da ezaguna: obra hau R.M. Azkuek argitaratu zuen lehen aldiz *Euskalzalea* izeneko aldizkarian (*Gabonetako ikuskizuna* euskarazko izenburuarekin). Hego Euskal Herrian ondutako lehen antzerki-lana da eta lotura asko ditu pastoraletan: biak herri-antzerkia dira, ekitaldi bakarra dute eta ez dituzte espazio eta denbora unitateak errespetatzen. Baina, bestalde, badira aldeak bi antzerki mota horien artean: arabarraren obran manikeismoa edo pertsonaia on eta gaiztoen arteko banaketa ez da hain handia; askoz ere laburragoa da (500 ahapaldi ditu, eta pastoralek, berriz, 1.500 inguru); pastoralak beti ahapaldi-tankera berberaz kantatzen dira, eta beste honetan askoz tankera mota gehiago daude; euskalkia ere desberdina da (bizkaiera kasu honetan, zuberera pastoraletan). *Gabonetako ikuskizuna* bertsoz idatzita dago eta haren euskara erdarakadaz beterik dago, baina literatur balio handiko lana da. Garai neoklasikoan sortua izanik, orduko antzezpen orok bezala helburu didaktikoa zuen, Horazioren “irakatsi eta gozarazi” esaeraren bidetik; horretarako, obra honek Gabonetako misterioa azaltzen du erlijioari jarraituz, baina baita ikusle-goa dibertitzeko asmoz ere. Bere hogeitaz inguru pertsonaien artean, aipagarria da Grazioso edo Barregarria, berau federa bihurtzea obrako helburu nagusienetakoa izanik. Obra honetako euskara ulerterraza da, umoretsua, herri-esanez josia eta neurri desberdineko bertsoz osatua (luzeak eta laburrak nahastuz). Euskaraz idatzitako obra honen egitura osatuz, koro batek agertoki kanpotik kantatzen du, gaztelaniaz, lehen agerraldi edo eszenetan.

Oso gutxi dakigu **Pedro Ignacio de Barrutia (1682-1759)** arabarrari buruz; sasiko umea izan omen zen, Aramaion jaioa, eta eskribaua Arrasaten. Bere *Acto para la Nochebuena* lanagatik da ezaguna: obra hau R.M. Azkuek argitaratu zuen lehen aldiz *Euskalzalea* izeneko aldizkarian (*Gabonetako ikuskizuna* euskarazko izenburuarekin).




2.8. XVIII. MENDEA. EUSKAL ANTZERKIA. X. MUNIBE.

XVIII. mendean, Hego Euskal Herriko kulturaren alorrean bi izen ageri dira dizdira handiz: **Aita Larramendi** bata, eta **Xabier de Munibe Peñafloidako Kondea (1723-1785)** bestea. Azken hau, kultur bultzatzaile handia eta “Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte” (1765) sortu zutenetako bat izan zen; elkarte horretan hainbat elizgizon eta noblezia txikiko kide batzuk bildu ziren, haien artean Peñafloidako Kontea bera, M.I. Altuna (J.J. Roussearen laguna izandakoa), J.M. Eguia eta F. Samaniego idazle arabarra (kondearen iloba zen), besteak beste. Humanista “ilustratuak” ziren, eta Europako humanismoaren ildoko heziera nahi zuten euskal gazteentzat; Elkarteak “Bergarako Erret Mintegia”


sortu zuen horretarako. Munibek Frantziako Tolosako josulagunekin ikasi zuen 18 urte bete zituen arte. Bere jaiotetxea, Azkoitiako Insausti jauregia, kultur gaiez mintzatzen ziren hainbat lagunaren topaleku bihurtu zen. Ilunabarrean, lagunarteko bilera horiek alaitzeko, musika eta antzerki emanaldiak antolatzen zituzten, X. Munibe bera bultzatzaile, egile, antzezle eta zuzendari zelarik; *El Borracho Burlado* horietako bat izan zen. Obra honetan ere erabiltzen da euskara, gutxiagotan ordea; ahoz esatekoa den testu guztia gazteleraz dago, baina kantatzekoak diren zatiak euskaraz. Antzerki komiko eta musikala da, argumentu eta egitura dramatiko sinplekoa, eta beti ere “gozaraziz irakatsi” nahi duena, baina, aldi berean, baita euskara gustagarri bihurtu ere (“hacer feliz y envidiable al bascuence”). Muniberenak dira *Gabon sariak* ere (1762), Azkoitiako parrokiaren kantatzeko sortutako gabon kantak. Espainiako klasizismoaren garaiaren erdi-erdian (Luzán, Moratín, Sarmiento, Jovellanos, Iriarte, aita Isla, Cadalso eta beste hainbat autorerekin), “euskal ilustratuak” ere garrantzi handia eman zioten antzerkiari irakasbide bezala. Batzuetan, aitzindari jakintsu hauen ahalegina ez zen ondo ulertua izan Espainian, P. Islak eman zien izenak (“Caballeros de Azcoitia”) islatzen duen bezala; geroago, Menéndez y Pelayo poligrafo kantabriarrak “heterodoxo” iritzi zien.

2.9. XVIII. MENDEA. EUSKAL HIZKUNTZALARITZA ETA LITERATURA. M. LARRAMENDI ETA HAREN JARRAITZAILEAK. LITERATUR GIPUZKE-RAREN SORRERA.

Lapurterazko euskal literatura idatziak, XVII. mendean nagusi izan ondoren, garrantzia galdu zuen gipuzkeraren eskutik; XVIII. mendeko bigarren erdian M. Larramendi (1690-1766) izan zen mugimendu honetako izenik gorena. Andoaingo josulagun hau bere garaiko gizonik jakintsuenetako bat izan zen. Lan gogoangarria egin zuen gramatikari, lexikografo, historialari, euskararen eta euskal lege zaharren (batez ere Gipuzkoako foruen) defendatzaile bezala; filosofia eta teologia irakaslea izan zen Salamancako unibertsitatean, eta Carlos II.aren emazte María Ana erreginaren aitorle. Euskaraz idatzita utzi zuena, kantitateagatik eta kalitateagatik, ezin da konparatu gaztelaniazko bere lanekin, baina nolana ere guztiz aipagarria da aitzindari honen obra, eragin erabakiorra izan zuelako bere garaiko eta geroagoko hainbat eta hainbat euskal idazlerengan. Gainera, euskaraz idatzi zuen prosa bikaina da, ez ordea bere bertsoak. Idatzi zituen bi liburu handietatik (bata, *El imposible vencido, Arte de la lengua vascongada*, 1729; bestea, *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latín*, 1745), lehenengoa nabarmentzen da. Garai hartan, aita Mariana josula-



Xabier de Munibe Peñaflorida-ko Kondea (1723-1785). Kultur bultzatzaile handia eta “Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte” (1765) sortu zutenetako bat izan zen; elkarte horretan hainbat elizgizon eta noblezia txikiko kide batzuk bildu ziren. Humanista “ilustratuak” ziren, eta Europako humanismoaren ildo-ko heziera nahi zuten euskal gazteentzat.



Lapurterazko euskal literatura idatziak, XVII. mendean nagusi izan ondoren, garrantzia galdu zuen gipuzkeraren eskutik; XVIII. mendeko bigarren erdian M. Larramendi (1690-1766) izan zen mugimendu honetako izenik gorena. Andoaingo josulagun hau bere garaiko gizonik jakintsuenetakoa bat izan zen.

gunak euskara gaitzestu zuen bere obretan, “rudem et barbaram linguam” zela esanez; Larramendik, hain zuzen ere kontrakoa frogatzearren, lehen euskal gramatika hori idatzi zuen, 404 orritan, euskararen egitura gramatikala (deklinabidea, aditza, joskera, prosodia, azentua, etab.) garbi azalduz, eta batik bat gipuzkeran oinarriturik. Bigarren liburua, hiztegi hiru-eledun handia, 229 orriko hitzaurre luze batez osatuta dago, euskararen antzinatasuna eta perfektzioa defenditzeko. Hiztegiak gaur egun ez dauka lehenago izandako ospea, Larramendik berak asmatutako hainbat hitz berri dituelako, haietako asko arbitrario samarrak. Dena dela, akatsak akats, izugarritzko lana izan zen, batez ere kontutari hartzen badugu zein garaitan osatu zen. Larramendik hainbat jarraitzaile izan zituen, haien artean aipagarrienak hiru josulagun gipuzkoar: **Agustin Cardaberaz (1703-1770)**, **Sebastian Mendiburu (1708-1782)** eta **Juan Antonio Ubillos (1707-1789)**.

2.10. XIX. MENDEA. PROSA NARRATIBOAREN SORRERA. LITERATUR BIZKAIERAREN SORRERA.


XVIII. mendean aita Larramendiren eta bere taldearen lana funtsezkoa izan bazen gipuzkera literatur euskalki bihurtzeko, beste horrenbeste esan daiteke geroagoko **Juan Antonio Mogel (1745-1804)** eta **Pedro Añibarro (1748-1830)** idazleei buruz bizkaiera literatura idatzirako erabiltzeari dagokionez. Lehenengoaren *Peru Abarca* (1881) liburua, egilea hil baino ia laurogei urte geroago argitaratua, prosa narratiboaren abialekua da, eta, gainera, Markinako azpieuskalkia finkatu zuen literatur hizkuntza moduan. Idazleak berak esan zuen euskarari leporatzen zioten pobrezia gezurrezkoa zela frogatzeko idatzi zuela liburua. Izenburuan bertan irakur daitekeenez, baserritar baten eta Maisu Juan barberuaren arteko elkarrizketak dira, eta haien bidez egileak asmo argi bat du: baserriko euskara kalekoa baino hobea dela erakustea. Oso liburu atsegingarria da, umorez betea eta guztiz interesgarria euskarari buruz eta XVIII. mendeko bigarren erdiko euskal etnografiari buruz ematen duen informazioagatik: ohiturak, burdinolak, nekazaritzarako tresnak, landare eta animalien izenak, etab. Markinako abadearen ondoan beste lau elizgizon ere kokatu behar ditugu (hiru bizkaitar eta bat Gipuzkoan jaioa), kristau dotrina azaltzeko idatzi zituzten sermoi eta liburu handiekin bizkaiera edertzen lan bikaina egin zutenak: **Pedro Añibarro (1748-1830)** frantziskotarra, Billaron jaioa eta liburu asko idatzi zituen, haien artean aipagarrienak *Escu-liburua* (Tolosa, 1802) eta *Lora-sorta espirituala* (Tolosa, 1803); **Pedro Astarloa (1751-1821)** frantziskotar durangarra, *Urteco domeca gustijetaraco berbaldi icasbidecuak* (Bilbo, 1816) liburua-

ren egilea; Markina-Etxebarriko **Frai Bartolome de Santa Teresa (1768-1835)** karmeldarra, **Icasiquizunak** (Iruñea, 1816) idatzi zituen; eta **Juan Jose Mogel (1781-1849)** apaiz azkoitiarra, **Baserritaar nequezaleentzako escolia** (Bilbo, 1816) liburua idatzi zuena.

2.11. XIX. MENDEA. EUSKAL DIALEKTOLOGIA.

LOUIS LUCIEN BONAPARTE ETA HAREN LAGUNTZAILEAK.

L.L. Bonaparte (1813-1891) printzea, Lucien Bonaparteren seme eta Napoleon I enperadorearen iloba, A. D'Abbadierekin batera, euskal kulturaren babeslerik handiena izan zen XIX. mendean. Kimikari eta minerologo lanbideari utzi ondoren, bete-betean ekin zion hizkuntzalaritzari, eta mende erdi batez euskaraz arduratu zen bereziki. Hizkuntzak ikasteko dohain apartekoak izanda, bost hizkuntzaz hitz egin eta idaztera iritsi zen (ingeles, frantses, italiera, espainiera eta euskaraz), eta Europako beste hainbat hizkuntza ere erabiltzen zituen bere ikerlan linguistikoetarako. Langile nekaezina izan zen, nortasun indartsukoa eta buruzagi izateko eta lantaldeak osatzeko iaioa; horri esker, beraien euskalkiak oso ondo zekizkiten idazle eta pertsona batzuk bildu ahal izan zituen lanerako: M. Intxauspe, J.A. Uriarte, J. Duvoisin, C. Otaegi, B. Etxenike, J.B. Artxu, A.P. Iturriaga, Sallaberry, Casenave, J. Udabe, P.J. Sanper, M. Mendigatxa, Ibarregarai, A. Kanpion, J.I. Arana, etab. Euskalki guztiak zehaztasunez sailkatu nahi izan zituen, metodologia zientifiko hutsean oinarrituz, gero euskararen mapa linguistikoa osatzeko lortutako emaitzekin. Gainera, kanpo-lana sistematikoki egin zuen lehena izan zen, horretarako Londrestik Euskal Herrira bost aldiz etorri zelarik 1856, 1857, 1866, 1867 eta 1869. urteetan. *Le verbe basque en tableaux* (1869) lanean 8 euskalki bereiztu zituen (bizkaiera, gipuzkera, lapurtera, zuberera eta lau nafarrera mota), 25 azpieuskalki eta 50 aldaki. "L.L. Bonaparteren eskuizkribuak" deitzen direnen artean, euskarara eginiko itzulpen asko daude (Biblia eta dotrinetatik eta frantses eta gazteleratik egindakoak), lexikoak, poesiak, etab. Eskuizkribuetako batzuk printzearenak berarenak dira; beste batzuk, aldiz, laguntzaileenak. Argitaratzaile lanetan, 33 euskal liburu plazaratu zituen, haien artean aipagarrienak M. Intxausperen *Le verbe basque*, eta **Jean Duvoisin**en (1810-1891) *Bible edo Testament zahar eta berria* (Londres, 1859).



XVIII. mendean aita Larramendiren eta bere taldearen lana funtsezkoa izan bazen gipuzkera literatur euskalki bihurtzeko, beste horrenbeste esan daiteke geroagoko Juan Antonio Mogel (1745-1804). Lehenengoaren *Peru Abarca* (1881) liburua, egilea hil baino ia laurogei urte geroago argitaratua, prosa narratiboaren abialekua da.

2.12. XIX. MENDEA. ALEGIGILEAK. PROSA PROFANOA.

Euskaldunek betidanik maite izan dituzte alegia edo fabulak. Dena dela, literatur genero bezala ia ezezaguna izan zen Euskal Herrian XIX. mendera arte, eta inoiz ere ez zen iritsi euskal produkzioaren genero ezberdinen artean nabarmentzera. Garai hartako alegigilerik onenak A.P. Iturriaga, B. Mogel, J.M. Zabala, J.A. Mogel, J.A. Uriarte, L. Goyhetche eta J.B. Artxu ditugu, besteak beste.



Euskaldunek betidanik maite izan dituzte alegia edo fabulak. Dena dela, literatur genero bezala ia ezezaguna izan zen Euskal Herrian XIX. mendera arte, eta inoiz ere ez zen iritsi euskal produkzioaren genero ezberdinen artean nabarmentzera. Garai hartako alegigilerik onenak A.P. Iturriaga, B. Mogel, J.M. Zabala, J.A. Mogel, J.A. Uriarte, L. Goyhetche eta J.B. Artxu ditugu, besteak beste. **Agustin Pascual Iturriaga (1778-1851)** apaiz hernaniarra gazte-pedagogia alorreko maisu eta bidegile izan zen batez ere, idatzi zituen hiru liburu didaktikoek frogatzen dutenez. Haren lana ez zen beti ondo ulertua izan, entziklopedista eta gazte-hondatzaitzat hartu baitzuten klaseetan erabiltzen zituen ideia liberal eta berritasun pedagogikoengatik, eta atzerrira aldegin behar izan zuen. Haren liburuen arteko onena *Ipuiak o fábulas y otras composiciones en verso bascongado* (Donostia, 1842) da, Birjilioren bi egloga (1.a eta 2.a) eta Félix Samaniego arabarraren liburutik ateratako 55 alegia. Oso moldapen bikaina egin zuen, oso ondo azaldu zituelako alegia horien ironia, umorea eta satira. Arreta berezia merezi du, halaber, lehen emakume idazle euskaldunak, **Bizenta Mogel (1782-1854)** azkoitiarrak. J.A. Mogelen iloba honek euskal ilustratu edo “Azkoitiako zalduntxoek” eragina izan zuen, haren jaioterriagatik, heziketagatik eta obragatik. Osabarekin latina ikasi zuen, emakume gehienei irakurtzea bai baina idaztea onartzen ez zitzaizen garai batean. Oso emakume argia izan zen, *Ipui onak* (1804) izeneko prosazko liburua idatzi zuena: Esoporen alegiak dira, euskarara itzuliak. Aurreko bi idazleon mailara iritsi ez arren, aipagarria da orobat **Juan Mateo Zabala (1777-1840)** frantziskotar bilbotarraren *Fábulas en dialecto vizcaíno* izeneko liburua. Bertsoz idatzitako 22 alegia ditu, eta J. Urkixok argitaratu zuen *RIEV* aldizkarian.

2.13. XIX. MENDEA. EUSKARAREN APOLOGISTAK.


Aita Larramendik (gazteleraz beti) euskararen defentsan eginiko lanaren ildotik, badira “Aitorren hizkuntza” zaharraren beste bi apologista, bata gazteleraz idatzi zuena, eta bestea frantsesez: P.P. Astarloa apaiz durangarra da lehena eta J.A. Chaho zuberotarra bigarrena. **Pablo Pedro de Astarloa (1752-1806)** beti euskaraz predikatzen zuen sermoilari ospetsua izan zen, baina haren *Apología de la lengua bascongada* (Madrid, 1803) gazteleraz idatzita dago. Bi idazleok Aita Larramendi eta J.A. Mogelen tradizioarekin bat datoz, euskara laudatu eta goraipatzen baitute, paradisuko hizkuntza, oso zaharra eta hizkuntzarik perfektoena dela esanez. Astarloak garai hartako fantasiak nahastu zituen bere hiz-

kuntz ikerlanetan, etimologia oker asko atera zituelarik uste linguistiko faltsuetan oinarritu zelako. Dena dela, oso ahalegin handia egin zuen euskal aditz joskera aztertzeko. W. Humboldt prusiarrak (Astarloaren obra osoa, gaur egun ia dena galdua, ezagutu zuenak) garai hartan euskarari buruz gehien zekien gizona iritzi zion. Mugaz bestaldean, badugu euskararen beste apologista bat, **Joseph Augustin Chaho (1811-1858)** Atharratzen jaioa eta Aitor euskaldunen arbaso zaharraren mitoa sortu zuena; liburu batzuk idatzi zituen frantsesez, eta euskaraz *Azti begia* izeneko liburuska bat; kazetari lanetan ihardun zuen, eta Zuberoako pastoralak eta euskal mitologia ikertu zituen. Euskarari, eta euskal lexiko, gramatika, folklore, eta abarri buruz egin zituen azterlan ugarietan idazle erromantiko, burujabe, xeble, iraultzaile, entziklopedista eta bidente moduan azaltzen da, egiazko gertakariak eta bere irudimen beroak sortutako burutazioak nahastuz. Literaturaren munduko pertsonaia handi batzuekin (CH. Nodier eta V. Hugorekin) eta politika alorreko beste batzuekin (Zumalakarregi generalarekin) izan zituen harremanak areago ugaltu zituen idazle interesgarri honen ideia fantasiatsuak. 1834an *Revue des voyants* izeneko kazeta sortu zuen: bidente horiek, jakina, euskaldunak dira, halako errebelazio baten gordetzaile direlako.

2.14. XIX. MENDEA. LITERATURA ERLIJIOSOA GIPUZKOAN.

Esan ohi da euskal literatura idatzia gehienbat erlijiosoa dela gai eta egile aldetik; horren froga ditugu ondoko lerrook. Hiru apaiz gipuzkoar dira (J.B. Agirre, J.I. Gerriko eta F.I. Lardizabal), gipuzkera erabiliz fede gaiei buruzko liburu handiak argitaratu zituztenak; oso prosa narratibo bikaina dute hirurek, baina haietan balio linguistikoa handiagoa da berez literarioa baino. **Juan Bautista Agirre (1742-1823)** asteasuarrak obra handi bat idatzi zuen, *Eracusaldiac*, mila eta bostehun orri baino gehiagokoa, hiru liburutan banatua; gaiak sakramentuak, manamenduak, Jesukristo, Amabirjina, etab. dira. Garai hartako idazlerik onena izan zen, dudarik gabe, haren euskararen kalitateagatik eta sintaxiaren maila handiagatik. Horrelako mailara iritsi gabe ere, aipagarria da **Jose Ignazio Gerriko (1740-1824)** segurarra. Haren obrarik garrantzitsuena *Cristau Doctrina guztiaren esplicacioaren sayaquera* (Tolosa, 1858) da; kristauen dotrina, dogma eta moralari buruzko azalpen zabala da, argi eta zehatza. Saiakera estiloa erabiltzea da, hain zuzen ere, obra honen berritasuna: igandeko mezetako sermoiak hemen galde-erantzun moduan agertzen dira. Liburu zabal hau, 1.100

Aita Larramendik (gaztelaraz beti) euskararen defentsan eginko lanaren ildotik, badira “Aitorren hizkuntza” zaharraren beste bi apologista, bata gaztelaraz idatzi zuena, eta bestea frantsesez: P.P. Astarloa apaiz durangarra da lehena eta J.A. Chaho zuberotarra bigarrena.



Euskal poesiarentzat aurrerapausu handia izan zen 1853an Antoine D'Abbadiek (1810-1897) "Lore-Jokoak" sortu izana. Gizon ikasia zen, 14 hizkuntza zekizkiena, eta Pariseko "Académie des Sciences"-eko lehendakari izan zena, baina gure artean ezaguna euskal kulturari eman zion babesagatik. Hendaiaiko bere etxea orduko euskaltzale askoren biltoki bihurtu zen.



2.16. XIX. MENDEA. EUSKAL KAZETARITZAREN HASIERA.

1886an *Le réveil basque* izeneko astekari errepublikazale eta antiklerikala sortu izanak kontrako joerako beste astekari baten sorrera eragin zuen; horrela, *Eskualduna* izeneko kazeta argitaratzen hasi zen Baionan, hainbat urtez Iparraldeko euskal idazlerik onenen partaidetza izan zuelarik. **Jean Hiriart-Urruti (1859-1915)** kalonjea kazetako zuzendari eta kolaboratzaile izan zen 1887an sortu zenetik. Bestalde, zuzenean euskaraz pentsatzen eta idazten hasi ziren kazetari bikainen bi belaunaldiren maisu eztabaidatugabea ere izan zen. Astekari horretako orriek, gainera, euskal irakurle kopuru handia irabazi zuten. Jean Hiriart-Urrutik ez zuen bizi zen bitartean bere liburutik argitaratu, baina haren kazetari-artikulu ugariekin bi osatu ziren gerora: bata *Mintzaira, aurpegi: gizon!* (1971), eta bestea *Zezenak errepublikan* (1972). Haren dizipulurik aurreratuenetako bat, zalantzarik gabe, **Jean Etxepare (1877-1935)** idazle eta medikua izan




Eskualduna aldizkarian 1902tik aurrera argitaratu zituen artikulak bildu eta bere lehen liburua plazaratu zuen 1910ean: *Buruxkak*; bertan, nabarmena da F. Nietzsche filosofo alemaniarraren eragina. Halaber, *Gure Herria* aldizkarian ere maiz idatzi zuen, eta materiale horiekin bere bigarren liburua osatu zuen: *Beribilez*; liburu honetan Euskal Herrian zehar eginiko egun bateko bidaia kontatzen du, zehaztasun eta koloretasun handiz.

zen. Elizgizonak nagusi ziren literatura batean, mediku honen prosa dotoreak garai hartako euskal kazetaririk nabarmenenetako bat bihurtu zuen. Jorratu zituen gaien berritasun eta berezitasunak batetik, eta, bestetik, erabiltzen zuen euskara aristokratikoak halako kutsu berezia ematen diote haren obrari. *Eskualduna* aldizkarian 1902tik aurrera argitaratu zituen artikulak bildu eta bere lehen liburua plazaratu zuen 1910ean: *Buruxkak*; bertan, nabarmena da F. Nietzsche (1844-1900) filosofo alemaniarraren eragina. Halaber, *Gure Herria* aldizkarian ere maiz idatzi zuen, eta materiale horiekin bere bigarren liburua osatu zuen: *Beribilez* (1931); liburu honetan Euskal Herrian zehar eginiko egun bateko bidaia kontatzen du, zehaztasun eta koloretasun handiz. *Jean Saint-Pierre* (1884-1951) gotzaina Iparraldeko beste kazetari aipagarri bat da, oso prosa ederra erabiltzen zuena; bere eliz ihardueragatik asko idatzi behar izan zuen frantsesez, baina inoiz ez zuen baztertu bere arbasoen hizkuntza, eta oso orrialde ederrak utzi zizkigun.


2.17. XIX-XX. MENDEAK. EUSKAL ANTZERKIA. DONOSTIAKO TALDEA.

Euskal foruen galerak (1876ko uztailak 21), euskal nortasuna desagertarazi ordez, kulturaren eta, batez ere, euskararen aldeko maitasuna berpizteko balio izan zuen. Gipuzkoan, eta Donostian bereziki, idazle talde bat antolatu zen *Jose Manterola* (1849-1884) bultzagile isil eta eraginkorraren inguruan. Honek “Euskal Jaiak” izenekoekin A. D’Abbadiek hasitako “Lore-Jokoen” tradizioari eutsi zion, baina haruntzago ere joanez, *Euskal-Erria* (1880-1918) izeneko aldizkaria sortu zuelako. Gainera, argitara eman zuen *Cancionero Vasco* (1877-1880) argitalpenarekin garaiko euskal idazleen arteko lotura estuagoa bilatu zuen, haien artean Miguel de Unamuno bera (1864-1937) ere egon zelarik. Aipatzekoa da, orobat, *Serafin Baroja* (1840-1912), Pío Baroja idazlearen aita eta *Gaciguezac* (1875) liburuaren egilea. Edo *Marcelino Soroa* (1848-1902), besteak beste *Iriyarena* (1876) izeneko obra idatzi zuena: gaztelarazko zarzuela moduko bat da, euskarazko zatiak dituen; autore honek euskara antzerkira eramateko ahalegin handia egin zuen, eta haren lehen obrak hainbesteko arrakasta eduki zuen, non 14 idaztera iritsi baitzen, bakarren bat elebiduna, baina gehienak euskara hutsez. Idazle honen ikasle bikaina izan zen *Toribio Alzaga* (1861-1941) donostiarra, euskarazko antzerkian aldaketa nabariak sartu zituen, oso serio hartu zuelarik Donostian jokatzen ziren antzezlanen idazle eta zuzendari betekizuna. Garai hartako beste langile porrokatu bat *Avelino Barriola* (1885-1944) izan zen, euskarazko antzerkiari hamar obra utzi zizkiona. Haren azken helburua, ordea, ez zen jen-

dea dibertitzea, baizik eta euskara ikastera eta, batez ere, hitz egitera bultzatzea. Joera didaktiko, linguistiko eta pedagogiko horren barruan kokatu behar dugu **Antonio Arzac (1855-1904)** eta **Ramón Artola (1831-1906)** idazleen obra ere.




Euskal foruen galerak (1876ko uztailak 21), euskal nortasuna desagertarazi ordez, kulturaren eta, batez ere, euskararen aldeko maitasuna berpizteko balio izan zuen. Gipuzkoan, eta Donostian bereziki, idazle talde bat antolatu zen Jose Manterola (1849-1884) bultzagile isil eta eraginkorraren inguruan.



3. S. XX. LITERATURA ABERTZALEAREN HASIERAK

Euskal nortasuna eta hizkuntza berreskuratzeko borrokan, Nafarroan Arturo Kanpion poligrafoa (1854-1937) eta Bizkaian Sabino Arana (1865-1903) eta Resurrección M^a de Azkue (1864-1951) nabarmendu ziren. Lehenak euskara edo “lingua navarrorum” delakoaren alde tinko jokatzeko beharra azaldu zuen Iruñean.



3.1. XIX-XX. MENDEAK. EUSKAL LITERATURAREN INSTITUZIONALIZAZIOA. AURRE-ABERTZALETASUNA ETA EUSKAL LITERATURA BI MENDE ARTEAN.

Euskal nortasuna eta hizkuntza berreskuratzeko borrokan, Nafarroan **Arturo Kanpion** poligrafoa (1854-1937) eta Bizkaian **Sabino Arana** (1865-1903) eta **Resurrección M^a de Azkue** (1864-1951) nabarmendu ziren. Lehenak euskara edo “lingua navarrorum” delakoaren alde tinko jokatzeko beharra azaldu zuen Iruñean, eta Nafarroako foruak sutsuki defenditu zituen. Euskaldun berria izan zen, eta asko eta kalitate handiz idatzi zuen: 15 liburu eta, guztira, 7.000 orri inguru. Aipagarriena, zalantzarik gabe, haren *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua vasca* (1884) da. Beste jarrera guztiz desberdin, baina aldi berean hausturazale eta arradikalago batekin, euskal abertzaletasunaren aita dugu, Sabino Arana. Bera ez zen karrerako hizkuntzalaria izan, baizik eta batez ere propaganda ideologikoa egin nahi zuen autodidakta bat; baina oso joera garrantzitsua sortu zuen, neurri handian euskararen ortografia, morfologia eta lexikografian izandako aldaketak baldintzatu zituen. Literaturaren ikuspegitik, aipatzekoak dira haren abertzaletasuneko poemetan ageri duen indar, egiazaletasun eta hunkidura. Beste alde batetik, adostasun handiz esan ohi da R.M. Azkue lekeitiarra Euskal Herri osoan euskararen inguruko mundurako erreferentzia eta interesgune nahitaezkoa izan zela haren bizitza luzean zehar. Beti lanerako gaitasun apartekoa erakutsi zuen, bai eta musikazaletasun handia ere. Harritzekoa da nolako lan izugarria egin zuen euskal kulturaren izen erraldoi honek hainbat eta hainbat alorretan: gramatikan, hiztegigintzan, euskararen batasunean, ipuingintzan, elaberrigintzan, ahozko herri-literatura mota desberdinetan, euskarazko ikasbideetan, operan, zarzuelan, itzulpengintzan, hizlaritzan, euskarazko irakaskuntzan, edota Euskaltzaindiaren zuzendaritzan, haren sorreratik bertatik (1919-1951). Haren lan literarioen artean, honako hauek ditugu: *Bein da betiko* (1893) haren lehen elaberria, *Ardi galdua* (1919), *Patxi Guzur* (1897) eta *Latsibi* (1989); baina osperik handiena eman diotenak *Diccionario Vasco-Español-Francés* (1905-1906), *Cancionero Popular Vasco* (1921), *Morfología Vasca* (1923) eta *Euskalerriaren Yakintza* (1935-1947) dira.

3.2. XX. MENDEA. EUSKO IKASKUNTZA (1918) ETA EUSKALTZAINDIA (1919).

1918ko irailaren 5ean, **Eusko Ikaskuntzak** Oñatiko Unibertsitatean ospatu zuen I. Batzarraren barruan, euskara iraunarazi, bultzatu eta lantzeko erakunde bat sortzea erabaki zen, eta horren ondorioz sortu zen **Euskaltzaindia**. Lau euskal diputazioen akordioz erakunde horri bultzada eman zitzaion, euskara babestu eta suspertzeko, beti ere haren goiburua ("Ekin eta jarrai") dioenaren bidetik. Urte hori baino lehenago ere egin zen ahaleginik antzeko erakunde bat sortzeko, baina ez zen horrelakorik gauzatu; horrela, adibidez, Jose Paulo Uribarri arabarrak 1832an eginiko saioa, edo Aristides de Artiñanok 1886an, Durangoko "Euskal Jaiak" bitartean egindakoa. Oñatiko batzarrean lau euskaltzain oso izendatu ziren: R.M. Azkue, A. Kanpion, L. Eleizalde eta J. Urkixo, eta haiei beste zortzi kide bildu zitzaizkien 1919ko irailaren 21ean Gipuzkoako Diputazioan. Honako hauek izan dira Euskaltzaindiak izandako buruak eta haien aginte-urteak: R.M. Azkue (1919-1951), Ignazio M^a Etxaide (1952-1962), Jose M^a Lojendio (1964-1966), Manuel Lekuona (1967-1970), Luis Villasant (1970-1988) eta Jean Haritschelhar (1988tik orain arte). Erakunde honek hainbat lan-batzorde ditu bere ikerlanak burutzeko: gramatika, onomastika, dialektologia, literatura, "Iker Batzordea" eta "Jagon Saila" euskararen babeserako; denek oso proiektu interesgarriak dituzte, haien artean hiru hiztegi osatzea (*Orotariko Euskal Histegia*, euskara batuarena eta literatur hitzena); Euskal Herri osoko atlas dialektologikoa; hainbat gramatika, etab. Euskaltzaindiak badu aldizkari bat bere lanak ezagutzera emateko: *Euskera*. Egoitza nagusia Bilbon dauka, baina ordezkariak ditu beste euskal hiriburuetan. Hainbat efemeride aipa daitezke haren bizitza luzean zehar: haren sorrera, 1968ko Arantzazuko batzarra (urrezko eztaiak ospatzeko), bertan euskara batuaren oinarriak finkatu zirelarik, eta diamantetzko eztaiak, 1995ean Leioako Unibertsitatean ospatu zirenak.

1918ko irailaren 5ean, Eusko Ikaskuntzak Oñatiko Unibertsitatean ospatu zuen I. Batzarraren barruan, euskara iraunarazi, bultzatu eta lantzeko erakunde bat sortzea erabaki zen, eta horren ondorioz sortu zen Euskaltzaindia.



3.3. XIX-XX. MENDEAK. EUSKAL ELABERRIAREN JAIOTZA.

Antoine D'Abbadiek antolatu zituen **Lore-Joko**etan euskal poesiak izan zuen leku nagusia eta prosak ez zuen batere sarrerarik eduki; bestalde, XVIII. mendean gero, euskal literaturan landutako prosa guztia erlijiosoa izan zen, eta esan daiteke prosa profanoa eta fikziozko literatura ez zirela gure artera iritsi harik eta J.B. Dasconaguerreren *Atheka-gaitzeko oihartzunak* (1870), J.B. Elizanbururen *Piarres Adame* (1888) eta R.M. Azkueren *Bein da betiko* (1898) izenburuko aurre-elaberriak argitaratu ziren arte; obra hauek **Txomin Agirre (1864-1920)** ondarrutarraren nobela tradizional eta ohi-turazkoaren aurrekaritzat jo ditzakegu. Kritikari batzuek José M^a Pereda (1833-1906) idazle kantabriarraren nobelagintza-ren eragina antzeman dute ondarrutarraren obran, baina seguru aski hobe da XIX. mendearen bigarren zatiko literatura karlista, foruzale eta aurre-abertzalean bilatzea eragin-iturri hori. Agirreren izena hiru nobelagatik ezagutzen da batez ere euskal literaturan: *Auñemendiko lorea* (1898), *Kresala* (1906) eta *Garoa* (1912). Lehendabizikoaren kontagaita VII. mende-ko Vasconiako Dukerrian baskoien eta frankoen arteko gerra-urte ilunen garaian gertatzen da. Bigarrena ohitura-elaberria da, eta Bizkaiko Arranondo izeneko itsas-herri batean gertatzen da istorioa XIX. mendearen bigarren erdian. Hirugarren nobelak (hau ere ohitura-elaberria da), Oñati aldeko baserri bateko familia baten bizitza du kontagai. Mende erdi luze batez, Txomin Agirre figura eredu-garria izan zen gainontzeko euskal nobelagileentzat. Ondarrutarraren maila erdie-tsi gabe ere, badugu beste idazle bizkaitar bat ere, Mundakan jaioa: **Jose Manuel Etxeita (1842-1915)**; bi nobela idatzi zituen, *Josecho* (1909) eta *Jayoterri maitia* (1910).

3.4. XX. MENDEA. ALDIZKARIAK: RIEV, EUSKAL ESNALEA, EUSKALERRIAREN ALDE, ARGIA, ZERUKO ARGIA.

XX. mende hasieran, aipamen berezia merezi dute Hego Euskal Herrian argitaratu ziren aldizkari desberdinek. Honako hauek izan ziren: *RIEV* edo *Revista Internacional de Estudios Vascos* (1907), **Julio Urkixo (1871-1950)** bilbotarrak fundatua; haren izpiritua kritiko eta profesionaltasunagatik gailendu zen, euskal ikerlanetan amateurismoa nagusi zen garai batean. **Gregorio Mujika (1854-1931)** gipuzkoarrak ere lan handia egin zuen *Euskalerriaren Alde* aldizkariaren zuzendaritzan. Berau bultzagile bat izan zen, bere aldizkarian urte haietako idazlerik onenak biltzen jakin zuena, bera 1931n hil eta aldizkaria bera ere desagertu zen arte. Euskal kulturari eta haren hizkuntzari batez ere ia mende laurden bateko lan osoa eskainita, G. Mujika bi belaunaldiren arteko zubia izan zen: Jose Manterolarena bata, eta Aitzolena bestea; azken honen eskutik utzi zuen lehenagoko idazle zaildu batzuen kultur ondare interesgarria: Emeterio Arrese (1869-1954), Klaudio Sagarzazu “Satarka” (1895-1971), Luis Jauregi “Jautarkol” (1896-1971), Fermin Irigarai “Larreko” (1869-1949), etab. Aipatu beharrekoa da, halaber, 1921-1936 bitartean *Argia* aldizkariak eginiko kultur lana, lehenago **Victor Garitaonandia (1876-1929)** eta geroago **Ambrosio Zatarain (1912)** zuzendarien eskutik. Astekari hau ia osorik ateratzen zen euskaraz, eta 7.000 harpidedun izatera iritsi zen, bere garaiko euskal aldizkarien artean lehena izatea lortuz. Argitalpen hauek guztiak eta haien bultzagileak Donostian finkatuta zeuden; aldiz, *Zeruko Argia* hilabetekaria Iruñean argitaratu zen garai hartan, 1919tik aurrera, **Damaso Inza (1886-1986)** kaputxinoaren ardurapean. Geroago, 1959an, aldizkari hau ere Donostiara aldatu zen, formatu berria hartuz, eta aktualitateari eskainitako aldizkari bilakatu zen. Aldizkari honek 1970ean kaputxinoen ardurapetik askatu eta *Argia* izena hartu zuen.



REVUE INTERNATIONALE

DES

ÉTUDES BASQUES

ANNÉE 1907




PARIS

PAUL GEUTHNER, 68, RUE MAZARINE

1907

XX. mende hasieran, aipamen berezia merezi dute Hego Euskal Herrian argitaratu ziren aldizkari desberdinek. Berezi *RIEV* edo *Revista Internacional de Estudios Vascos* (1907), Julio Urkixo (1871-1950) bilbotarrak fundatua; haren izpiritu kritiko eta profesionaltasunagatik gailendu zen, euskal ikerlanetan amateurismoa nagusi zen garai batean.



4. S. XX. GUDA ZIBILA AURREKO LITERATUR BIZKUNDEA

4.1. XX. MENDEA. EUSKAL LITERATUR PIZKUNDEA ESPAINIAKO GERRA AURREAN.

José de Aristimuño “Aitzol” (1896-1936) tolosarrak garai oso bat markatu zuen, garai laburra zoritxarrez, eta Jokin Zaitegi (1906-1979) poetak “Aitzolen belaunaldia” izenez bataiatu zuena. Apaiz hura txikia zen gorputzez, baina idealista handia, borondate indartsukoa, eta literatura estetikaren epaile zorrotza izaten jakin zuen proiektu politiko-literario baten barruan.



José de Aristimuño “Aitzol” (1896-1936) tolosarrak garai oso bat markatu zuen, garai laburra zoritxarrez, eta Jokin Zaitegi (1906-1979) poetak “Aitzolen belaunaldia” izenez bataiatu zuena. Apaiz hura txikia zen gorputzez, baina idealista handia, borondate indartsukoa, eta literatura estetikaren epaile zorrotza izaten jakin zuen proiektu politiko-literario baten barruan; idazle gazteen bultzatzaile eta euskal kultur pizkundearen sustatzaile izan zen Espainiako Gerra aurreko hamarkadan (1926-1936). Horrela, 1927an Lizardi, Orixe, G. Mujika eta beste batzuekin **Euskaltzaleak** izeneko elkarte sortu zuen euskal kultura suspertzeko; geroago, hainbat lehiaketa antolatu zituen: “Euskal Poesiaren Eguna” (1930-1936), “Kirikiño” Saria (1929-1934), “Bertsolari Eguna” (1935-1936), etab. Gainera, euskal kulturari buruzko *Yakintza* izeneko aldizkaria eta Donostiako *El Día* egunkaria sortu zituen; berak egunero-egunero idazten zuen egunkari hartan, euskal kultura berri, poesi sorkuntza (ahozkoa zein idatzizkoa) zuzpertu eta euskara bera iraunarazi eta babestu beharra aldarrikatuz. Betekizun horren barruan nabarmentzekoa da haren *La muerte del euskara o los profetas de mal agüero* (1931) liburua, non Unamuno, P. Baroja eta Ortega y Gasseti eraso egiten baitie, euskararen heriotza iragarri eta nahi zutelako, egozia ez zelakoan mundu modernoko dinamika aberatsari adierazpidea emateko. Estaturik gabeko nazioen arazoaz interesaturik, bete-betean uste zuen euskara eta euskal literatura estu-estu lotuta zeudela Euskadiren burujabetzaren aldeko borrokarekin. Aitzolen belaunaldiko idazleen zerrenda agortzeko asmorik gabe, honako izen hauek aipatu behar dira: “Orixe”, “Lizardi”, “Lauaxeta”, “Loramendi”, J. Zaitegi, E. Arrese, “Jautarkol”, A. Tapia-Perurena, S. Onaindia, E. Erkiaga, P. Etxeberria, “Gaztelu”, F. Loidi, “Barrensoño”, “Satarka”, Tx. Jakakortajarena, V. Amezaga, A. Zugasti, K. Enbeita, I. Enbeita eta A. Arozena.

4.2. XX. MENDEA. MODERNOTASUNAREN BIDETIK. POESIA LIRIKOA.

Jose M^a Agirre “Xabier Lizardi” (1896-1933) Zarautzen jaio zen (Gipuzko-

an), baina haren poesi-iharduera Tolosan landu zuen batez ere. Olerkari abangoardista eta modernotasun berezikoa izan zen, eskuhartze handia izan zuen Espainiako Gerra aurreko euskal poesiaren berrikuntzan bere izaera berritzaile eta irekiari esker, nahiz eta XX. mende hasierako European sortuak ziren “ismo” desberdinen eskola guztietatik kanpo egon. Unamunoren kantu negartiez nekatuta eta nazkatuta (haren poesiari onenetako bat eskaini zion, “Eusko-bidaztiarena”, 1931) eta, aldi berean, Menéndez Pelayo poligrafo kantabriar ospetsuaren “la honradez de la poesía vascongada” esaldi ironiko eta zirikatzaileak minduta, Lizardik aire berriak ekarri zizkion euskal poesia tradizional, erromantiko eta popularrari: horrela, kanon poetiko bere-berea sortu zuen, su eta gar defenditu zuena garai hartan piztu ziren eztabaida ugarien erdian. Lizardiren poemagintzak ez du erabateko hausturarik egiten euskal poesia tradizionalarekin, baina bai ekarri zizkion osagai kualitatiboki desberdin batzuk. Seguru aski, ordura arteko euskal poeta bakar batek ere ez zuen asmatu Lizardiren antzera naturari bizi berria eranstean, jazkera sinboliko eta metaforikoa ematen. Haren estiloa oso pertsonal eta landua da aldi berean, laburzale eta trinkoa, moderno baina baita klasikoa ere bere irudietan, oso lirikoa. Haren arau nagusia kondentsazio jakintsua izan zen, errepikakortasuna eta ponposotasuna ekiditeko. Lizardik ez du bakarrik errealitatea deskribatzen eta ez du haren erretratua egin nahi ere (idazle errealista eta naturalistek egin zutena), baizik eta itxuraldatu egiten du, pertsonifikazioaz edo prosopopeiaz baliatuz. Poeta gipuzkoar honek bere bizitzan izan ez zuen ospea dauka gaur egun, idatzi zuen liburu bakarrari esker (*Biotz-begietan*, 1932), baina ez litzateke zuzena izango ahaztea beste alor batzuetan ere lan handia egin zuela, hala nola prosan, antzerkian eta kazetaritzan.

4.3. XX. MENDEA. POESIA MODERNOA.

Esteban Urkiaga “Lauaxeta” (1905-1937) Laukizen (Bizkaian) jaio zen eta Lizardirekin batera Espainiako Gerra aurreko euskal idazle ugarien arteko poetarik modernoena izan zen. Biek sofritu behar izan zuten beren poesi-kanona defenditzeagatik: biek poesia kultu, kontzeptual, elitistaren aldeko apostua egin zuten, eta biek eskuratu zuten poesia lehiaketako lehen saria, Lauaxetak 1930ean Erreterian eta Lizardik 1931n Tolosan. Josulagunen komentuetan literatura klasiko greko-erromatarraz eta literatura unibertsal eta modernoaz jaso zuen prestakuntzak zorrotz zuen poetagaiaren luma. Gazte samar hil zen



José Mª Aguirre, “Xabier de Lizardi” (1896-1933) Zarautzen jaio zen (Gipuzkoan), baina haren poesi-iharduera Tolosan landu zuen batez ere. Olerkari abangoardista eta modernotasun berezikoa izan zen, eskuhartze handia izan zuen Espainiako Gerra aurreko euskal poesiaren berrikuntzan bere izaera berritzaile eta irekiari esker.



“Lauaxeta” idazle eklektikoa da, eskola poetikorik gabekoa, eta hainbat poetaren eragina izan zuena; euskal poesia mota berri bat bilatzea zen haren helburua, eta horretarako ordura arte euskal literaturan saiatu gabeko hizkuntza poetikoa erabili zuen.

arren (32 urtez fusilatu zuten Francoren tropek), bi poesia liburu, hainbat saiakera eta kazeta-artikulu eta zenbait antzezlan utzi zituen idatzita. “Lauaxeta” idazle eklektikoa da, eskola poetikorik gabekoa, eta hainbat poetaren eragina izan zuena; euskal poesia mota berri bat bilatzea zen haren helburua, eta horretarako ordura arte euskal literaturan saiatu gabeko hizkuntza poetikoa erabili zuen. Haren poemagintzan eraginik nabarmenena izan zuten idazleak honako hauek izan ziren: Th. Gautier, P. Verlaine, Ch. Baudelaire, P. Valéry, J.R. Jiménez, F. García Lorca eta J. Maragall. Lauaxetak, esan bezala, bi poema liburu utzi zizkigun, biak nahiko desberdinak: bata *Bide-barriak* (1931), eta bestea *Arrats-beran* (1935). Lehenak 41 poema ditu, oso egoera animiko desberdinetan idatziak, eta ikutu erromantiko garbia dutenak. Bigarrenak 40 poema ditu; haietan, egileak “bertsoak zizelkatu” egin nahi ditu lehen liburuan erabilitakoen aldean guztiz bestelakoak diren gai, estilo eta hizkera erabiliz. Lauaxetak “lepoa bihurritu” nahi zion erromantikoen hizjarioari eta ponposotasunari, axaleko patetismoari eta doinu elegiakoei, poeta sinbolista frantsesen ildoari jarraituz.


4.4. XX. MENDEA. POESIA ERLIJIOSO LIRIKO ETA EPIKOA.

Nicolas Ormaetxea “Orixe” (1888-1961) euskal idazlerik enblematikoenak da, eta Koldo Mitxelena haxe idatzi zuen berataz: “él es acaso el autor más importante de toda la literatura vasca”. “Orixe” Gipuzkoako Oresa herrian sortu zen, eta Espainiako Gerra aurreko euskal literaturako izen gorena izan zen, XX. mende hasierako euskal kulturaren lekuko aparta, atzerrialdian euskal idazle gazteek miretsitako maisua, idazle polifazetiko eta polemikoa, euskararen eta euskalki desberdinen erregistro guztien ezagutzaile bikaina, itzultzaile iaio eta oso pertsonala, prosalari handia, euskarari doinu berria ateratzen jakin zuena, poeta liriko (gai erlijiosoetan batez ere) eta epiko (bere *Euskaldunak* lan erraldoian) zoragarria. Haren obra orijinalen artean honako liburuak nabarmendu daitezke: *Santa Kruz apaiza* (1929), *Barne-muinetan* (1934), *Quito'n arrebarekin* (1987), *Euskaldunak* (1950) eta *Jainkoaren billa* (1971); horietaz gainera, baditu “Poesi solteak” izenez ezagutzen diren hainbat poema. Haren literaturako gairik handiena erlijioa da. Josulaguna izandako ikasle honek oso modu berezian ulertutako erlijioak jarrera kontserbatzailea edukitzera eramane zuen. Haren gutunek, artikuluek eta literaturaz, filosofiaz, hizkuntzalaritzaz, erlijioaz, politikaz, pedagogiaz, soziologiaz etab. idatzi zituen saiakerek Orixe kontserbatzaile, tradiziozale eta klasiko bat erakusten digute, bai ideologiari,

bai estiloari dagokienez. Estilo aldetik, halako desoreka bat antzematen zaio: izan ere, alde batetik idazle klasiko greko-latinoak eta poeta erlijioso espainiarrak miresten zituen, eta bestetik nabarmenki urruntzen da bere garaiko zenbait idazle gazterengan hain eragin handia izan zuten poeta sinbolista, surrealista eta modernistengandik.



Nicolas Ormaetxea “Orixe” (1888-1961) euskal idazlerik enblematikoena da, eta Koldo Mitxelenak haxe idatzi zuen berataz: “él es acaso el autor más importante de toda la literatura vasca”. “Orixe” idazle polifazetiko eta polemikoa, euskararen eta euskalki desberdinen erregistro guztien ezagutzailerik bikaina da.



5. S. XX. KANPO ETA BARRUKO ERBESTEAN EGINIKO EUSKAL LITERATURA

5.1. XX. MENDEA. ATZERRIALDIKO EUSKAL LITERATURA (1936-1975).

Espainiako Gerra Zibilak (1936-1939) eragindako euskal atzerrialdiak bi ezaugarri berezi izan zituen: alde batetik, 150.000 pertsona inguruk alde egin behar izan zuten, eta bestetik atzerrialdiak luze iraun zuen; hainbat euskal idazle, politikari eta artistak jasan zuten.



Espainiako Gerra Zibilak (1936-1939) eragindako euskal atzerrialdiak bi ezaugarri berezi izan zituen: alde batetik, 150.000 pertsona inguruk alde egin behar izan zuten, eta bestetik atzerrialdiak luze iraun zuen; hainbat euskal idazle, politikari eta artistak jasan zuten: besteak beste, Orixek, J. Zaitegik, T. Monzon, J.M. Leizaolak, V. Amezagak, A. Ibinagabeitiak, Tx. Jakakortajarenak, A. Arozenak, M. Ugaldek, Eloy Placerrek, J.M. Barandiaranek, "Aita Donostiak", J. Garatek, J. Oñatibiak, A. Urrestarazu "Umandik", J. Aspiazuk, I. López Mendizabalek, A. Irujok, Jose Antonio Agirrek, Arteta anaiek, etab. Atzerrialdi hori bi aldiz dramatikoa izan zen, pertsonen deserriarekin batera euskara ere kanporatu zelako, Francoren erregimenak legez kanpo utzi eta gero. Garai honetan, Buenos Airesko **Ekin** argitaldaria dizdira berezia izan zuen. Martin Ugaldek dioenez, **Ekin** "ha sido el faro donde han mirado los vascos que querían saber de la producción literaria vasca en momentos en que no había dónde mirar". Haren sortzaile izandako **I. López Mendizabal** eta **Andrés Irujok** aipamen berezia behar dute, beren argitaldaria plazaratu zituen euskarazko eta euskal kulturari lotutako liburuengatik. Horra hor, adibidez, **J.A. Irazustaren** bi nobelak, *Joañixio* (1946) eta *Bizia garratza da* (1950); **Martín Fierro**-ren itzulpena, **Tx. Jakakortajarenak** egina; **V. Amezagak** itzultitako *Hamlet* antzezlanak; edo **J.M. Leizaolak** ahozko euskal literaturaz osatu zituen sei liburuak. Argitaletxe horrekin batera, *Euzko-Gogoa* aldizkaria ere aipatu behar da (baina geroago hitz egingo dugu hartaz). **J. Zaitegik** bere lehen poesia liburua (*Goldaketan*, 1946) argitaratu zuen bitartean, haren bi lagun **Orixek** eta **A. Ibinagabeitiak** Frantzia eta Ameriketara idatzi eta plazaratu zituzten beren lanak; gipuzkoarrak *Urte guztiko Meza-bezperak* (1949) meza-liburua eta *Quito'n arrebarekin* argitaratu zituen, eta bizkaitarrak, aldiz, hainbat literatur egitasmotan hartu zuen parte, helburu garbi batekin: euskararen biziraupena. Eusko Jaurlaritzako ministroa izandako **T. Monzon** jaunak bi poesia liburu idatzi zituen: *Urrundik* (1945) eta *Gudarien egiñak* (1947). Azkenik, **J. Eiza-**

girre tolosarrak *Ekaitzpean* elaberria argitaratu zuen 1948n, eta **Martin Ugaldek** beste liburu hauek: *Iltzalleak* (1961), *Umeentzako Kontuak* (1966), *Ama gaxo dago* (1963) eta *Gurpegin aspaldi gertatua* (1965).

5.2. XX. MENDEA. GERRA ONDOKO BELAUNALDIA. KULTUR ERRESISTENTZIA (1936-1975). (I)


Askotan entzun ohi da gerra ondoko belaunaldiak belaunaldi galduak direla; bada, horixe bera gertatu zen euskal literaturan. Dena dela, garai hartako egoera sozio-kultural larria gora-behera, badira aipatzea merezi duten nobela, poesia, antzerki eta saiakera idazle batzuk.

Nobela. Genero honetan **Agustin Anabitarte (1891-1981)** daukagu, *Poli* (1958) izeneko elaberria argitaratu zuena. Idazle donostiar honek oso ondo islatu zuen bere sortzezko hiriko bizimodua eta euskara. Bestetik, **Eusebio Erkiaga (1912-1993)** lekeitiarrak bi belaunaldiren arteko zubi-lana egin zuen eta sei nobela idatzi zituen: *Arranegi* (1958), *Araibar zalduna* (1962), *Batetik bestera* (1962), *Jaioko dira* (1984), *Txurio txoria* (1986) eta *Irribarrea galtzen danean* (1987). Mende erdi luzez nobela, poesia, antzerkia eta kazetaritza landu zituen, bizkaieraz baliatuz batik bat. **Jon Etxaide (1920)** idazle donostiar handia nobelan eta antzerkigintzan eginiko lan zabal eta aipagarriagatik nabarmentzen da, eta gainera itzultzaile zehatz eta arduratsua ere izan da. Haren obrarik interesgarrienak *Joanak joan* (1955) eta *Gorrotoa lege* (1964) dira. **Augustin Zubikarai (1914)** ondarrutarraren produkzio zabalak (40 liburutik gora) aipamena merezi du bizkaierari eskaintzen dion arretagatik eta bere herriko hizkeratik ateratako hitz eta esaerak erabiltzeagatik. Gazte-gaztetandik parte hartu zuen *Eguna* euskarazko egunkariaren sorreran eta erredakzio-buru izatera iritsi zen; haren lan gehienak nobela eta antzerkia generoetakoak dira. Bere herriko ikerlan monografiko batzuk ere osatu ditu, euskal etnologiarentzat jakingarri oso aberatsak ematen dituztenak. Azkenik, ezin dezakegu ahaztu **Jose Antonio Loidi (1916)** gipuzkoarraren nobela poliziako ezaguna (*Amabost egun Urgain'en*, 1955).

Poesia. **Nemesio Etxaniz (1899-1982)** apaiz azkoitiarraren figurak irakurlea harritu egiten du haren izpiritu liberal, kritiko eta berritzaileagatik; aitzindaria izan zen gerraoste hurbilean, bai eta kalitate handiko poeta ere. Bi elaberri, zenbait antzerki-lan, ipuinak, garaiko abeslarietako hainbat eta hainbat letra ("Ez dok amairu" taldea, etab.) eta poesia idatzi zituen; bere poema-lan gehiena *Lur berri billa* (1967) izeneko liburuan dago.

5.3. XX. MENDEA. GERRA ONDOKO BELAUNALDIA. KULTUR ERRESISTENTZIA (1936-1975). (II)

Santiago Onaindia (1909-1996) karmeldar bizkaitarrak bere lanaren handi-zabalagatik eta bere literatur produkzio ugari eta era askotarikoagatik harritzen du irakurlea. Poemagintzan aritu zen, eta bere poesiak *Olerki guztien bilduma* (1989) izenburuko liburuan bilduta daude. Bi aldizkari sortu zituen, *Karmel* (1950) eta *Olerti* (1959), azken hau poesiari erabat eskainia. Bestalde, bere *Milla euskal olerki eder* antologia (1954) egiazko oasi bat izan zen gerra ondoko literatur desertuaren erdian. Haren produkzio ugarian nabarmentzekoak dira, halaber, sei liburutan osatu zuen *Euskal literatura* ikerlana eta bertsolaritzari buruzko hiru saiakera. **Jose Ignazio Goikoetxea (1908-1983)** Gazteluko apaizak ere aipatua izatea merezi du bere bi liburuengatik: *Musika-ixilla* (1963) eta *Poesiak* (1990). Lehendabizikoan Fray Luis de Leónen eta San Joan Kurutzekoaren poesia hautatu batzuen itzulpena egin zuen; bigarrenean, aldiz, euskal poeta eragin klasiko eta lizar-diarrak alboratu eta poesia existentzialean barnatu zen, oinazea, atzerriratzea, bakardadea, ezkortasuna eta zalantza ageri-agerian utzirik. Kierkegaard eta Unamunok markaturiko ildo existentzialista horretatik jarraituz, **Salvatore Mitxelena (1919-1965)** frantziskotar poeta zarauztarra daukagu; beronek, 1949an, zentsura frankista zorrotzaren hamarkada oso baten ondoren, *Arantzazu, euskal-sinismenaren poema* argitaratzea lortu zuen, Euskal Herrian gerraren ondoren plazara-



Koldo Mitxelena irakasle argitsua, Errenterian jaioa, hizkuntzalaritzan ez ezik, duela gutxira arte askorentzat ezezaguna izandako alor batean ere gailendu zen: saiakeran eta literatur eta zine kritikan. Bada garaia haren izena euskal literaturari buruzko eskuliburuetan saiakera atalean agertzeko.

tu zen lehen euskal literatur lana. Poema epiko luze bat da, Arantzazuko Amabirjinari eskainia, zeinetan babeslekua bilatzen baitu bere bihotz minberaturantz eta galtzorian dagoen bere nazio txikiaren oinazeentzat. **Xabier Dihartze “Iratzeder” (1920)** Donibane-Lohitzuneko poeta bikain eta Belokeko monasterioko fraileak ***Biziaren olerkian* (1983)** izeneko liburu eder bat, 653 orrikoa, osatu zuen, mende Erdiko bere poemak bilduz. Bere poesiari lirikotasuna, finezia, euskararekiko eta Euskal Herriarekiko maitasuna darizkio. Azkenik, beste hiru poeta ditugu, gipuzkoarra bata eta bizkaitarrak besteak, azken biak adin beretsukoak eta sorleku hurbilekoak: **Fernando Artola “Bordari” (1910-1983)**, Hondarribikoa, bi libururen egilea (***Goraintzi*, 1968, eta *Bakoitzak berea*, 1982**); **Balendin Aurre Apraiz (1912)**, Ajangizkoa; eta **Sabin Muniategi (1912-1989)**, Arteaga-Gautegizkoa. Aurrek ***Egunen bidean* (1994)** idatzi zuen, bizkaierarekiko maitasuna eta Lauaxetarenganako mirespena nabarmenduz; eta Muniategik hiru liburu argitaratu zituen: ***Goiz Aize* (1963), *Bidean gora* (1970) eta *Betiko alorrean* (1978).**

5.4. XX. MENDEA. GERRA ONDOKO BELAUNALDIA. KULTUR ERRESISTENTZIA (1936-1975). (III)

Antzerkia. Antonio M^a Labaien (1898-1993) antzerkigile tolosarra Espainiako Gerraren ondoko literatur berpizkundearen lekuko aparta izan zen; gainera, 1932tik aurrera 54 zenbaki atera dituen ***Antzerti*** aldizkariaren sortzaile eta kolaboratzaileetako bat izan zen. Haren ***Teatro osoa euzkeraz* (1976-1977)** izenez atera ziren hiru liburuetan hoguei antzerki-lan aurkitzen ditugu. Haren ondoren, zuzena da aipatzea beste herri-antzerkigile bat, genero hau atsedetik gabe eta arrakastaz landu duena: **Piarres Lartzabal (1915-1987)** lapurtarra. “Sokoako apaiza” izandako honek konpromezu handia izan zuen euskal kultura eta politikarekin, eta antzerkigintzaren alorrean 50 lan baino gehiago idatzi zituen. Haren lagun **Telesforo de Monzón (1904-1981)** poeta eta lehen Eusko Jaurlaritzako ministro izandakoak ere antzerkia landu zuen, bederatzi obra idatzi zituelarik helburu argi batekin: euskara eta bere herria defenditzea. Francoren garaia erdian, txalotzekoa izan zen, halaber, **Augustin Zubikarai (1914)** bizkaitarraren lanen antzezpena: ***Seaska inguruan, Jaunaren bidetan, Mariñelak* eta *Kresaletan***, Ondarroako “Kresala” taldeak taularatuak.


Saiakera. Euskal literaturan oso gutxi ordezkaturako genero honetan badira bi izen behintzat aipatu behar direnak: **Salvatore Mitxelena (1919-1965)** eta **Koldo Mitxelena (1915-1987)**. Lehenak ***Unamuno ta abendats*** idatzi zuen 1955ean Montevideon, eta 1958an argitaratu Baionan; obra hau euskal literatu-



6. S. XX. GAURKO EUSKAL LITERATURA

6.1. XX. MENDEA. IDAZLE HETERODOXO ETA HAUSTURAZALEEN BELAUNALDIA.

Espainiako Gerra ondoko ia bi hurrengo hamarkada osoetan (1939-1957), euskal idazleek Euskal Herri idealizatu bat eraiki zuten. Aldiz, 50eko hamarkadaren bukaeran, belaunaldi berritzaile, hausturazale eta bipil batek beste proiektu ideologiko, kultural eta estetiko bat proposatu zuen, lehengo tradizionalaren aldean oso desberdina.



Espainiako Gerra ondoko ia bi hurrengo hamarkada osoetan (1939-1957), euskal idazleek Euskal Herri idealizatu bat eraiki zuten, gerra aurreko aldian euskal nortasunaren oinarri izandako baloreak berriro zutik jartzen ahaleginduz. Aldiz, 50eko hamarkadaren bukaeran, belaunaldi berritzaile, hausturazale eta bipil batek beste proiektu ideologiko, kultural eta estetiko bat proposatu zuen, lehengo tradizionalaren aldean oso desberdina. Proiektu hori bultzatu zutenak honako idazleok izan ziren batez ere: J. Mirande, G. Aresti, F. Krutwig, "Txillardegia" eta Tx. Peillen. **Jon Mirande (1925-1972)** aitzindari ikonoklasta moduan azaldu zen. Haren ideologia arbuia garria eta eskandaluzkoa izan zen euskaldun askorentzat, kristautasunaren, Eliza katolikoaren, juduen, EAJren abertzaletasunaren, demokraziaren, sozialismo eta marxismoaren, Frantzia eta Espainiaren eta abarren kontrakoa izan zelako, eta fedegabetasunaren alde (P. Barojaren eragina) eta F. Nietzschek predikaturiko moralaren alde agertu zelako. Poema-sorta bat, elaberri bikain bat (*Haur besoetakoa*, 1970), umore beltzeko ipuin batzuk eta zenbait saiakera labur idatzi zituen. Haren adiskide eta herrikide dugu **Txomin Peillen (1932)** paristar euskalduna, Miranderekin batera *Igela* izeneko aldizkari heterodoxoa bultzatu zuena ("Euskaldun heterodoxoen errebista" azpi-izenaz azaldu zen). Autore hau, Zuberoako herri literaturaren ezagutzaile sakona izateaz gainera, hainbat polizi-nobela eta saiakera ere egingakoa da. Hego Euskal Herrian, bestalde, poesiaren eraberrikuntza **Gabriel Aresti (1933-1975)** bilbotarraren eskutik etorri zen; autore honek hiru poesia liburu, nobela bat, antzerki-lan batzuk, ipuinak, artikulak eta gutun asko idatzi zituen. Euskal poesiaren gaiak eta teknika eraberritu zituen, eta genero honetan aipatzekoa da haren *Maldan behe* (1959) poemategi luze eta zaila, 1.916 bertso dituen, 21 zatitan eta 222 ahapalditan banatuak. Poeta berritzaileen artean, derrigorrez izendatu beharrekoak dira beste hiru gipuzkoar: **Juan San Martin "Otsalar" (1922)** eibartarra, hainbat poema idatzi zituena *Olerti*, *Egan* eta

Euzko-Gogoa aldizkarietan; **Joxe Azurmendi (1941)** saiakeragile bikaina, gaztetan poeta itxaropengarria izandakoa, **Hitz berdeak** izenburuko liburua argitaratu zuena 1971n; eta **Mikel Lasa (1938)** poeta donostiarra, sentiberatasun handikoa, 1971n bere **Poema bilduma** eta 1993an bere obra osoa **Memory dump** izenburuz argitaratu zituen.


6.2. EUSKARA BATUA. ARANTZAZU, 1968.

Euskaltzaindia 1919an eratu zenetik, haren helburuetako bat beti izan zen euskara batua egitea, hainbat euskalkitan banatuta baitzegoen. XIX. mendearen bukaeran bertan eta XX.aren hasieran ere ahalegin batzuk egin zituzten mugaz bi aldeetako idazleek irtenbideren bat bilatzeko, baina guzti-guztiek huts egiten zuten; beste araurik ezean, R.M. Azkuek proposatutako “gipuzkera osotua” (hots, gipuzkera beste euskalki batzuen ekarpenaz osatua) erabili zen. 1968an inork ez zuen zalantzan jartzen euskara batuaren beharra, baina irtenbidea bilatzeko orduan iritziak oso desberdinak ziren. Adibidez, F. Krutwig euskara batu kultu, elitista, zahar kutsukoa eta herri-hizkeratik oso urrundua proposatu zuen, eta Mitxelena, Villasantek eta beste batzuek, ordea, Axularren euskaratik hurbilagoko beste bat nahiago zuten, erdialdeko euskalkietan (gipuzkera eta lapurteran) oinarritua eta gainontzeko euskalkien ekarpenaz aberastua. Arantzazun tentsio handiko uneak bizi izan ziren, eta geroago haustura ere gertatu zen bi jarrera kontrakoren artean. Haustura hori areago larritu zen “h” letraren erabilera zela-eta, baina arazoaren muina sakonagoa, zailagoa eta arazotsuagoa zen. Bilera hartan, partehartze esanguratsua eduki zuena Mitxelena izan zen, Euskaltzaindiak aukeratua nahi zen batasunaren oinarriak finkatzeko proiektua aurkeztearren. Irakasle gipuzkoarra egiteko hura poliki-poliki betetzearen aldekoa zen, arazo larrienei ezer baino lehen helduz. Ikertu beharrik handiena zuten gaien artetik honako hauek proposatu zituen: idazkera edo ortografia, morfologia (deklinabidea eta aditz-jokoa), joskera, euskal hitzen forma zaharrak, etab. Garai hartan, 1967tik 1970era arte, Manuel Lekuona herri-literatur ikertzaile ospetsua zen euskaltzainburua, baina batuaren berrikuntza hau zela-eta, erabat hautsi zuen Euskaltzaindiarekin, ez baitzitzaizkion atsegin gazte batzuek zeukaten presa ez eta “h” letraren erabilera ere,

Euskaltzaindia 1919an eratu zenetik, haren helburu nagusietariko bat beti izan zen euskara batua egitea, hainbat euskalkitan banatuta baitzegoen. XIX. mendearen bukaeran bertan eta XX.aren hasieran ere ahalegin batzuk egin zituzten mugaz bi aldeetako idazleek irtenbideren bat bilatzeko, baina guzti-guztiek huts egiten zuten.



Ramon Saizarbitoriak lau nobela ditu: *Egunero hasten delako* (1969), *Ehun metro* (1975), *Ene Jesus* (1976, Literatur Kritikaren Saria 1981n) eta *Hamaika Pauso* (1995); azken honek ere Literatur Kritikaren Saria lortu du 1996an.



hain zuzen ere berau Iparraldean bai, baina Hegoaldean ez zelako erabiltzen. Dena dela, G. Aresti eta J. Mirande bezalako poeten obra batzuek eragin oso garrantzitsua izan zuten nahi zen euskara batu motan; beste horrenbeste esan daiteke aita Imanol Berriatuak *Anaitasuna* aldizkariaren bidez “batua” zabalteko egin zuen lanaz.

6.3. NOBELAREN GARAI MODERNOA: GAI ETA TEKNIKA BERRIAK. EXISTENTZIALISMOAREN ETA “NOUVEAU ROMAN” DELAKOAREN ERAGINA (1957-1964).

Euskal nobelagintza modernoaren sorreran Donostian jaiotako bi idazle aipatu behar dira derrigor: **Jose Luis Alvarez Enparanza** “*Txillardegi*” (1929) eta **Ramón Saizarbitoria** (1944). Lehena euskal nobelaren eduki ideologikoaren berritzailetzat hartu ohi da, eta bigarrena teknika modernoaren aitzindaritzat. Txillardegik bost elaberri idatzi ditu: *Leturiaren egunkari ezkutua* (1957), *Peru Leartzako* (1960), *Elsa Scheelen* (1969), *Haizeaz bestaldetik* (1979) eta *Exkixu* (1988); bat nabarmentzekotan, lehena aukeratuko genuke, autoreak euskal nobelagintzan lehen aldiz sartzen dituen osagai existentzialistengatik: pertsonaia gatazkatsu batek auzitan jartzen ditu Tx. Agirre, J.A. Irazusta eta beste batzuen nobeletako balore tradizionalak eta azkenik bere burua hiltzen du. Txillardegiren obran oso nabaria da idazle existentzialista batzuen eragina: gizakia mundura jaurlia izan da berari ezer galdetu gabe; bizitzak etengabe aukeratzera behartzen du gizakia, alde aurretik dakielarik aukera guztiek porrotera darmatela; ondorioz, gizakiaren patuak ez dauka helburu trascendentalik, eta heriotza da irteerarik gabeko eta noraezeko bukaera. Euskal nobelagintza modernoaren beste jauzi kualitatibo berritzaile bat **Ramón Saizarbitoriaren** eskutik gertatu zen; lau nobela ditu: *Egunero hasten delako* (1969), *Ehun metro* (1975), *Ene Jesus* (1976, Literatur Kritikaren Saria 1981n) eta *Hamaika Pauso* (1995); azken honek ere Literatur Kritikaren Saria lortu du 1996an. Euskal irakurleek oso harrera beroa eman zioten idazle gipuzkoar honen lehen nobelari, azaltzen zuen mundu “antinobelistikoa” horren berritasunagatik, “Nouveau Roman” frantsesaren teknika modernoaren ildotik eta, beraz, euskal nobelagintza tradizioaletik urrunduz. Bertan kontatzen den istorioan ekintza eta pertsona gramatikal desberdinak nahasten dira, lehentasuna emanez errelatuaren formari eta ez kontagaiari berari.

6.4. POESIA SOZIAL POSTSINBOLISTA.

Maldan behera (1959) liburu zoragarriak izan zuen harrera eskasaren ondoren, **Gabriel Arestik** (1933-1975) jarrera aldatu zuen, idaztanka zaila eta lapurtera

klasikoa abandonatuz hizkera zuzen eta lauagoa erabiltzeko. Blas de Otero (1916-1980) poetaren lagun handia izanda, *Pido la paz y la palabra* (1995) idatzi zuen egile honen poesia sozialaren eremura hurbildu zen. Aurretantzean, Aresti bere inguruan ezagutu eta jasan behar izan zuen gizarte zuzengabea aldatzen ahaleginduko zen, mailu bihurtutako hitzaren laguntzaz. Horregatik, gehiengo zabalarentzat abesten du harrera bero-beroa izan zuten hiru liburutan: *Harri eta herri* (1964), *Euskal Harria* (1967) eta *Harrizko herri hau* (1970). Garai hartako beste bi poeta bikain ere batu ziren gizatasunik gabeko gizarteak zapaldutako gizakiaren aldeko korora: **Juan Mari Lekuona** (1927) eta **Bitoriano Gandiaga** (1928). Lehenak *Mindura gaur* (1966) poemategia idatzi zuen, sufritzen duen gizakiaren aldeko jarrera azalduz. Gerora, kutsu antropologikodun poemak idatzi zituen, sinbolo eta metafora aberatsez beteak. Haren hiru liburuek (*Muga beroak*, 1973; *Ilargiaren eskolan*, 1979; eta *Mimodramak eta Ikonoak*, 1990) XX. mendearen bigarren erdiko euskal poesiaren gailurrik handienak erdietsi dituzte dagoeneko, beste obra bakan batzuekin batera. Beste poetak, Gandiagak, *Elorri* (1962) bere lehen liburuko poesia barnekoi eta erlijiosoa alboratu eta handik aurrera idatzi zuen poesia konprometiturik dago heldutasunera iritsi nahi baina zertzelada sozio-politikoengatik ezinduta dagoen bere nazio txikiarekin. Bere bigarren liburuan (*Hiru gizon bakarka*, 1974), oinaze hori adierazten du existentzialismo humanista eta kristau batetik. Geroago beste hiru poema liburu idatzi zituen. Bestalde, G. Arestik irekitako bidetik, **Xabier Lete** (1944) poeta eta abeslariak ere bere ahotsa altxatu zuen askatasun ezagatik protestatzeko bere lehen bi liburuetan: *Egunetik egunera orduen gurrpilean* (1968) eta *Bigarren poema liburua* (1974). Haren azken poemategiak (*Zentzu antzaldatuaren poemategia*, 1992), azken bi hamarkadetan postsinbolismoak egindako ekarpenik argienetako bat errepresentatzen du. Esandako poeta hauekin batera aipatzekoak dira, orobat, **J.A. Artze "Hartzabal"** (1939), **Mikel Zarate** (1933-1979) eta **Luis M^a Mujika** (1939).

Aresti bere inguruan ezagutu eta jasan behar izan zuen gizarte zuzengabea aldatzen ahalegindu zen, mailu bihurtutako hitzaren laguntzaz. Horregatik, gehiengo zabalarentzat abesten du harrera bero-beroa izan zuten hiru liburutan: *Harri eta herri* (1964), *Euskal Harria* (1967) eta *Harrizko herri hau* (1970).



BERNARDO ATXAGA

Obabakoak



crein
literatura


Garai hartan gutxi ezagutzen zuten Joxe Irazu (1951) gipuzkoarra, harik eta bere liburuetan Bernardo Atxaga izengoitia erabiltzen hasi zen arte. Gaur egun, ordea, euskal literaturak Europan lortu duen ordezkari nagusia izatera iritsi da, fenomeno sozial bat (ia hogeiz hizkuntzara itzuli da).

6.5. XX. MENDEA (1976TIK AURRERA). EUSKAL LITERATURAREN BURUJABETZAREN BILA. (I)

70eko hamarkadan, testuaren burujabetzaren bilaketak erabat burutu zuen aurreko hamarkadako poesia sozialarekiko haustura. Donostiako *Ustela* (1975) eta Bilboko *Pott* (1978) aldizkariak gaur egungo idazle garrantzitsu batzuen eskutik jaio ziren: Bernardo Atxaga, K. Izagirre, J. Sarrionandia, Joxe Mari Iturralde, etab. Haien arabera, literatura ez da inolako erreibindikazio sozio-kulturalerako tresna bat, baizik eta helburu bat berez. Garai hartan gutxi ezagutzen zuten **Joxe Irazu** (1951) gipuzkoarra, harik eta bere liburuetan **Bernardo Atxaga** izengoitia erabiltzen hasi zen arte. Gaur egun, ordea, euskal literaturak Europan lortu duen ordezkari nagusia izatera iritsi da, fenomeno sozial bat (ia hogeitaz hitzuntzara itzuli da), bere irudimen indartsuagatik, eta bere obrei ematen dien fatalitate-doinuagatik eta zentzu ironikoagatik atentzioa deitzen duena. Bere lehen nobelan (*Ziutateaz*, 1976) genero desberdinak (poesia, ipuina eta antzerkia) nahasten hasi zen, euskal nobelagintza tradizionalaren ereduak errespetatu gabe. *Etiopia* (1978) izenburuko bere lehen poema liburuaz “anfora hautsi” zuen, euskal poesian lubaki berri bat irekiz eta irizpide linguistiko eta literaturaz besterakoetatik urrundu. *Bi anai* (1985) nobela laburrean, autoreak haur munduaz, babesik gabeko gizakiez, baztertuez eta antiheroiez duen grina agertu zuen. *Obabakoak* (1988) ipuin-liburuaz Espainiako Literatur Sari Nazionala eskuratu zuen eta Europako literatur saririk garrantzitsueneko finalista izan zen. Obaba animaliaz populaturiko leku majikoa da. *Behi euskaldun baten memoriak* (1991) liburuan, Mo izeneko behi bizkorren pasadizoak kontatzen dira. Nobela hau, hasieran Euskal Herrian oihartun gutxi izan zuen arren, salmenta markarik handiena lortzen ari da kanpoan. *Gizona bere bakardadean* (1993) elaberrian, idazleak aurreko obretako kontaketa mitikoa bazterrean utzi eta egikera errealistako obra osatu zuen. Haren azken nobela, *Zeru horiek* (1995), alderdi askotatik aurrekoaren jarraipena da (gaia, errealismoa, pertsonaiak, etab.).

6.6. XX. MENDEA. EUSKAL LITERATURAREN BURUJABETZAREN BILA. (II)

Pott Bandako beste kide bat **Joseba Sarrionandia** (1958) dugu, gaur egun euskal literaturaren abangoardian dagoena nobelan, poesian, ipuinean, saiakeran eta itzulpenen daukan produkzio bikainagatik. Poesia kultuarekiko duen interesak, hizkera poetikoa bilatzeko kezkak, eta formazko perfekzioarekiko bere obsesioak (esamolde hautatuak, hitz aukeratuak, etab.) idazle elitista eta zaila dela azaltzen dute. Euskal literaturak bestelako helburuetatik kanpo eta aske egon behar duela defenditu du beti, bere militantzia politikoan aritu eta klandestinitatera igaro eta kartzela, ihesa eta atzerrialdia eza-gutu arren. Gainera, Sarrionandia irakurle handia da, literatura unibertsaleko idazle entzutetsuen aipu eta izenak txertatzea maite dituen. Autore gazte honen prosazko eta poesiazko liburuen zerrenda luzeak eta izan dituen argitalpenen kopuruak ondo frogatzen dute haren kalitatea eta harrera handia. Poesi alorrean, honako hauek azpimarratuko nituzke: *Izuen gordelekuetan barrena* (1981), *Marinel zaharrak* (1987), *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak* (1985) eta *Hnuy ill nyha majah yahoo* (1995). Irakurlearentzat oso deigarria da, orobat, haren prosa poetiko dotorea, alegiazko narrazioak, pertsonaia fantastikoak eta mundu mitiko berriak dituen. Genero honetan ere liburu garrantzitsuak ditu: *Narrazioak* (1983), *Ni ez naiz hemengoa* (1985), *Atabala eta euria* (1986) eta *Marginalia* (1988). Literatura “underground”-aren zale den beste idazle bat **Koldo Izagirre** (1954) gipuzkoarra dugu, bederatzi liburu argitaratu dituen. *Euzkadi merezi zuten* (1984) nobela hizkera narratibo fin eta poetikoaren bilaketa saiatzen du, etengabeko azterketa eginez baina euskalkietako esaeren aberastasuna baztertu gabe. Bestalde, emakume idazleen artean **Arantza Urretabizkaia** (1947) gipuzkoarraren poesia eta narrazioa nabarmendu behar dira. Gaztea zelarik poesia idatzi zuen: *San Pedro bezpe-*



Anjel Lertxundi (1948) oriotarra euskal narratzaile onenetako bat dugu gaur egun, bai haren ipuin labur ugariengatik, bai haren nobelengatik ere. Hizkuntzaren alorreko artista nekaezin honen produkzio zabalak 1970ean izan zuen abiapuntua. 1994an *Otto Pette* nobela trinkoa eman zuen argitara.

raren ondokoak (1972), baina geroago prosara igaro zen: haren *Zergatik Panpox* (1979) eta *Aspaldian espero zaitudalako ez nago sekula bakarrik* (1983) aukeratuko nituzke genero honetan.

6.7. XX. MENDEA. EUSKAL LITERATURAREN BURUJABETZAREN BILA. (III)

Anjel Lertxundi (1948) oriotarra euskal narratzaile onenetako bat dugu gaur egun, bai haren ipuin labur ugariengatik, bai haren nobelengatik ere. Hizkuntzaren alorreko artista nekaezin honen produkzio zabalak 1970ean izan zuen abiapuntua *Hunik arrats artean* izeneko ipuin bildumarekin. Ondoko urtean *Ajea du Urturik* argitaratu zuen, uholdea jasandako herri bat pertsonaia sinboliko bezala daukan nobela. *Goiko kale* (1973), datu autobiografikoz beteriko nobela, autoreak bere haurtzaro eta gaztaroko esperientzia du kontagai. 1980an *Aise eman zenidan eskua* argitaratu zuen, hizkuntza findu eta, aldi berean, herrikoia darabilen ipuin bilduma. *Hamaseigarrenean aidanez* (1983) nobela errealistarekin "1982ko Jon Mirande Saria" irabazi zuen; obra hau euskal narratiba tradizionaletik urrun kokatzen da, errelatu poliziakora hurbilduz. *Tobacco Days* (1987) liburuak itsas herrietako kontrabandoaren mundu iluna aurkeztu du, elkarrizketa ondo moldatuak eta teknika zinematografikoak erabiliz. 1989an *Carla* argitaratu zuen, marrazki bizidun egile bat bere pertsonaiez maitemintzen dela kontatzen digun nobela. Geroago, *Kapitain Frakasa* (1991) izenekoan, autoreak euskal joskera eraberritzeko erronkari helitzen dio, euskara mundu modernora moldatzeko daukan trebezia erakutsiz. Sei urteko prestakuntzaren ondoren, 1994an *Otto Pette* nobela trinkoa eman zuen argitara; bertan, literatura gehienbat fizikoa, artifizioa eta hizkuntzaren abentura dela frogatzen saiatzen da. *Piztiaren izena* (1995) liburuak deabrua du ardatz, bi zatitan banatuta. Bere orain arteko azken nobela (*Azkenaz beste*, 1996) Lertxundik judu erratuaren mitoa garatzen du. Beste bi idazle gipuzkoar bikainek ixten dute euskal autoreen zerrenda luze hau: **Joxe Austin Arrietak** (1949) eta **Joan Mari Irigoienek** (1948).

Biak trebe ezaldu dira poesian, ipuingintzan, nobelan eta itzulpengintzan, bai eta frogatu ere euskal literaturak maila oso altua erdietsi duela. Haietako lehenak ipuin laburrak (*Bidaia-Termitosti*, 1977) eta nobelak ere idatzi ditu: *Abuztuaren 15eko bazkalondoa* (1979) eta *Manu militari* (1987), obra konplexua eta egitura korapilatsua duena. Bigarren egilearen produkzioan nobela historikoak gailentzen dira; haietan, euskal familia batzuen istorioa, modernotasunak eragindako oinazea, iraganarekiko nostalgia eta lirismo idilikoa eta Hegoameriketako nobelagintza handiaren magia aurkezten ditu. Honako hauek dira: *Oilarraren promesa* (1976), *Poliedroaren hostoak* (1982), *Udazkenaren balkoitik* (1987), *Babilonia* (1989) eta *Consummatum est* (1993).

6.8. EUSKAL LITERATURAREN HISTORIOGRAFIA (I).

Orain arte eman ditudan pintzelkada labur hauen osagarri, euskal literaturaren historiari buruzko eskuliburu batzuen ezaugarririk garrantzitsuenak azaldu nahi ditut laburki. Lau multzo bereiztuko ditut: a) euskaraz idatzitakoak; b) gaztele-raz idatzitakoak; c) frantsesez idatzitakoak; d) elebietan idatzitakoak. **I. Euskaraz:** 1. *Euskal literaturaren atze edo edes-ti laburra*, Orixerena: *Euskal Esnalea* aldizkarian 1927an argitaraturiko hamabi artikulua labur biltzen ditu, eta beraz esan daiteke autoreak ez zuela euskal literaturari buruzko historia oso bat egin nahi izan. 2. *Amasei seme Euskalerriko* (1958), Jon Etxaiderena: XVI-XIX. mendeen arteko hamasei euskal idazlerik onenei buruzko azterlan interesgarri bat da. 3. *Euskal literaturaren historia* (1971), Ibon Sarasolarena: gure literatura Euskal Herriko testuinguru soziologiko eta ekonomikoan kokatzeko ahalegina eginaz euskal literaturari buruz euskaraz idatzita dagoen lehen historia da. 4. *Euskal Literatura* (1972-1991), Santi Onaindiarena: sei liburutan idatzita dago eta datu-iturri agortezina da. Autoreak arreta gehiago jartzen dio testuen alderdi linguistikoari literarioari baino, eta beharbada literatur kritika modernoaren irizpideen araberrako azterketaren falta nabaritzen da. 5. *Bizkaiko euskal idazleak* (1970), Mikel Zaraterena; idazle bizkaitarren obrak baino ez ditu aztertzen eta lau zatitan banatuta dago: a) XVI-XVII. mendeetako autoreak; b) Aita Larramendiren garaikoak (XVIII. mendea); c) Sabino Aranaren inguruko literaturgileak (XIX-XX. mendeak); eta d) idazle modernoak.

II. Gaztelaraz: 1. *Historia de la literatura vasca* (1960), Koldo Mitxelena: hainbat urtez euskal literaturaz sistematikoki egindako lehen historia osoa izan zen. Laburra izan arren, dauden onenetakoa da haren sakontasun, zehaztasun eta egileak erabilitako sistemagatik, eta beraz oraindik ere interes osoa du.

6.9. EUSKAL LITERATURAREN HISTORIOGRAFIA (II).

2. *Historia de la literatura vasca* (1961), Luis Villasanterena: datu altxor bat da, eta azken hiru hamarkadetan tresna ezin baliozkoagoa izatera iritsi zen. Mendez mende banatuta dago eta bi zati ditu: Hego Euskal Herriko autoreak eta Ipar Euskal Herrikoak. Ahozko herri-literaturari buruzko zati zabalago baten falta nabaria da. 3. *Enciclopedia general ilustrada del País vasco* (1969-1981), Estornés Lasa anaia: material bikaina eskaintzen du, bai eta ondo aukeratu eta gazte-lerara itzultitako euskal testu batzuk ere, bost liburu marduletan. 4. *Historia de la literatura euskérica* (1979), Luis M^a Mujikarena: bertan euskal idazleak haien testuinguru historiko, soziologiko eta etnikoan kokatzen dira; dena dela, halako desoreka bat antzematen da idazleei eskainitako analisietan, haietako batzuk (Detxepare, "Etxahun", "Lauaxeta", "Lizardi" eta "Orixen", adibidez) luze eta zabal tratatuta baitaude, eta beste batzuk (Tx. Agirre edo Kirikiño, esaterako), aldiz, oso azaletik. 5. *La literatura vasca. Siglo XX* (1990), Jon Kortazar irakaslearena: euskal literatura kontzeptua bera

zalantzan jartzen du, eta arreta gehiena “Literatur mugimenduen sorreran giltzarri izandako autoreak” direlakoei eskaintzen die. Liburuak XX. mendeko euskal literatura soilik aztertzen du, eta autoreak XIX. mende bukaerako eta XX. mende hasierako Europako literaturaren parez pare jartzen du euskal literatura. **III. Frantsesez:** 1. *Le Pays Basque. Sa population, sa langue, ses moeurs, sa littérature et sa musique* (1857), **Francisque Michelena:** liburu handia da, euskal idazle batzuei buruzko lau kapitulu oso interesgarri dituena: B. Detxepare, Oihenart, Axular... 2. *Le Basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse Navarre et Soule* (1941), **Pierre Lafitterena:** liburutxo eskematikoa da, euskal literaturaz emandako hitzaldi baten emaitza. Bi zati ditu, ahozko literatura eta idatzizkoa, eta Ipar Euskal Herriko zenbait autoreren idazlanak aztertzen ditu. **IV. Elebidunak:** *Euskal idazleak, gaur. Historia social de la lengua y la literatura vasca* (1977), **Joan M^a Torrealdayrena:** kontsulta-liburu oso baliagarria da. Gehienbat euskaraz idatzita dagoen arren, orri bakoitzak gaztelerazko laburpena ere badakar.

S. ONAINDIA

EUSKAL LITERATURA

(I)

LINGVAE VASCONVM PRIML
tis per Dominum Bernardum Detxepare
Reftorem faetimi michaelis veteris.



ETOR


Euskal Literatura (1972-1991), Santi Onaindiarena: sei liburutan idatzita dago eta datu-iturri agortezina da. Autoreak arreta gehiago jartzen dio testuen alderdi linguistikoari literarioari baino, eta beharbada literatur kritika modernoaren irizpideen araberrako azterketaren falta nabaritzen da.

BESTE ZENBAIT EUSKAL IDAZLE

- P. Laffite (Louhois, 1901-1985)
 J. Mocoroa (Tolosa, 1901-1990)
 A. Urrestarazu (Araya, 1902-1993)
 A. Arrue (Asteasu, 1903-1976)
 E. Salaberry (Heleta, 1903-1980)
 L. Aquesolo (Dima, 1911-1991)
 J.A. Arcocha (Motrico, 1911-1996)
 J. Basterrechea (Guernica, 1911)
 P. Solozabal (Marquina-Echevarria, 1912)
 J.M. Echaburu (Ondárroa, 1913)
 M. Estomba (Irún, 1916-1982)
 J. Querejeta (Elorrio, 1918)
 L. Villasante (Guernica, 1920)
 P. Charritton (Hasparren, 1921)
 J. San Martín (Eibar, 1922)
 J. Haritschelhar (Baigorri, 1923)
 I. Zaldúa (San Sebastián, 1924)
 X. López de Gereño (Bilbao, 1924)
 J. Casenave (Sta. Engracia, 1924)
 E. Larre (Baigorri, 1926)
 M.J. Minaberry (Baigorri, 1926)
 J. Hiriart-Urruty (Hasparren, 1927-1990)
 P. Altuna (Azpeitia, 1927)
 A. Irigoyen (Bilbao, 1929)
 J.M. Satrustegui (Arruazu, 1930)
 J.A. Arana (Guernica, 1931)
 M. Iturbe (Icazteguieta, 1932)
 M. Achaga (Urnietia, 1932)
 F. Bilbao (Morga, 1932)
 J. Erdozaintzi (Ibarrolle, 1934-1996)
 G. Garate (Elgoibar, 1934)
 X. Arbelbide (Heleta, 1934)
 J.A. Echevarria (Santurce, 1934-1996)
 P. Berasategi (Cegama, 1935)
 J.L. Davant (Urrustoi, 1935)
 J. Azurmendi (Cegama, 1935)
 J. Inchausti (Segura, 1936)
 E. Osa (Vergara, 1936)
 E. Odriozola (Azpeitia, 1936)
 E. Celayeta (Mallavia, 1940)
 L. Barayazarra (Meñaca, 1940)
 I. Irigoyen (Alza, 1940)
 M. Pagola (Landibarren, 1941)
 P. Iztueta (Berástegui, 1941)
 X. Amuriza (Echano, 1941)
 M. Azurmendi (San Sebastián, 1942)
 J. Erzibengoa (Rentería, 1942)
 J.M. Torrealday (Forua, 1942)
 R. Arregui (Andoain, 1942-1969)
 P. Ezkiaga (Legorreta, 1943)
 I. Zubeldia (Icazteguieta, 1945)
 I. Sarasola (San Sebastián, 1946)
 P. Urquizu (Lezo, 1946)
 D. Landart (Doniztiri, 1946)
 A. Lasa (Guetaria, 1948)
 M. Onaindia (Bilbao, 1948)
 J.A. Ormazabal (Cegama, 1948)
 R. Eguiguren (Hernani, 1948)
 J.M. Vélez de Mendizabal (Aramayo-na, 1949)
 M.A. Landa (Rentería, 1949)
 J.A. Aguirre (Azpeitia, 1949)
 P. Esnal (Zarauz, 1950)
 J.M. Elexpuru (Vergara, 1950)
 J.M. Iturralde (Tolosa, 1951)
 J.M. Olaizola (Zarauz, 1951)
 I. Garmendia (Zarauz, 1951)
 I. Zabaleta (Leiza, 1952)
 A. Arcocha (Baigorri, 1953)
 A. Eguzkitza (Santurce, 1953)
 E. Jiménez (Mundaca, 1953)
 M. Ercilla (Bilbao, 1953)
 J.R. García (Legazpia, 1953)
 A. Urrutia (Bilbao, 1954)
 A. Cazabón (Oyarzun, 1954)
 J. García (Legazpia, 1955)
 L. Mintegui (Estella, 1955)
 J.C. Igerabide (Aduna, 1956)
 J.A. Sagastizabal (Eibar, 1956)
 P. Lizarralde (Zumárraga, 1956)
 I. Irazabalbeitia (San Sebastián, 1957)
 J. Casenave (Heleta, 1957)
 H. Echeverria (Elgoibar, 1957)
 E. Gil Bera (Tudela, 1957)
 F. Juaristi (Azcoitia, 1957)
 R. Arregi (Vitoria, 1958)
 J. Alonso (Iruñea, 1958)
 P. Sastre (Madrid, 1958)
 M. Hernández Abaitua (Vitoria, 1959)
 P. Perurena (Goizueta, 1959)
 J.L. Otamendi (Azpeitia, 1959)
 J.M. Atutxa (Dima, 1959)
 I. Borda (Bayona, 1959)
 J. Landa (Alza, 1960)
 K. Santisteban (Carranza, 1960)
 A. Epalza (Pamplona, 1960)
 J. Arano (Isasondo, 1961)
 X. Echaniz (Oñate, 1961)
 A. Iturbide (Bilbao, 1961)
 J. Cillero (Bilbao, 1961)
 M. Albizu "Antza" (San Sebastián, 1961)
 T. Irastorza (Zaldivia, 1961)
 M. López (Bilbao, 1961)
 A. Egaña (Zarauz, 1961)
 M.J. Kerejeta (Cegama, 1961)
 J.R. Madariaga (Bilbao, 1962)
 K. Linazasoro (Tolosa, 1962)
 P. Aristi (Urrestila, 1963)
 I. Mujika (San Sebastián, 1963)
 J. Muñoz (Castejón, 1963)
 J. Gabilondo (Urrechua, 1963)
 A. Arana (Legazpia, 1963)
 L. Berrizbeitia (Abadiano, 1963)
 G. Marculeta (Oñate, 1963)
 I. Aranbarri (Azcoitia, 1963)
 J.L. Zabala (Azcoitia, 1963)
 P. Zubizarreta (Ordicia, 1964)
 A. Iturbe (Alegría de Oria, 1964)
 X. Mendiguren (Beasain, 1964)
 H. Cano (S. Sebastián, 1975)
 X. Montoya (Vitoria)
 J.A. Irigaray

BIBLIOGRAFIA

- AULESTIA, Gorka.** *Bertsolarismo*. Bilbao. Diputación Foral de Bizkaia, 1990.
- AZKUE, Resurrección María.** *Cancionero Popular Vasco*. Bilbao. La Gran Enciclopedia Vasca, 1968.
- CORTAZAR, Nicolás.** *Cien Autores Vascos*. San Sebastián. Auñamendi, 1966.
- ESTORNES, Bernardo.** *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*. San Sebastián. Auñamendi, 1969-1981.
- JUARISTI, Jon.** *Literatura Vasca*. Madrid. Taurus, 1987.
- KORTAZAR, Jon.** *Literatura Vasca, Siglo XX*. Donostia. Etor, 1990.
- LEKUONA, Juan Mari.** *Ahozko Euskal Literatura*. Donostia. Erein, 1982.
- LECUONA, Manuel.** *Literatura Oral Vasca*. San Sebastián. Auñamendi, 1964.
- MICHEL, François.** *Poesías Populares de los Vascos*. San Sebastián. Auñamendi, 1962.
- MICHELENA, Luis.** *Historia de la Literatura Vasca*. Madrid. Minotauro, 1960.
- MICHELENA, Luis.** *Textos Arcaicos Vascos*. Madrid. Minotauro, 1964.
- MUJICA, Luis Mari.** *Historia de la Literatura Euskerica*. San Sebastián. H. Altuna, 1979.
- SAN MARTIN, Juan.** *Escritores Euskericos*. Bilbao. La Gran Enciclopedia, 1968.
- SARASOLA, Ibon.** *Historia Social de la Literatura Vasca*. Madrid. Akal, 1982.
- TORREALDAY, Juan Mari.** *Euskal Idazleak, gaur. (Historia Social de la Lengua y Literatura Vascas)*. Oñati-Aranzazu. Jakin, 1977.
- URKIZU, Patri.** *Lengua y Literatura Vasca*. San Sebastián. H. Altuna, 1978.
- VILLASANTE, Luis.** *Historia de la Literatura Vasca*. Bilbao. Sendo, 1961.
- ZAVALA, Antonio.** *Bosquejo de la Historia del Bertsolarismo*. Tolosa. Auñamendi, 1964.



Euskal literaturari buruzko erakusketaren liburuxka honetan, haren lanabesa aurkeztu beharra dago: euskara; neurri handi batean, euskal literaturaren historia euskararen beraren historia delako. Euskara gaur egun Europa mendebalean bizirik dirauen hizkuntza ez-indo-europear bakarra da. Euskal literaturaren ezaugarri bereziak kontutan harturik, nekez konpara daiteke hurbileko herrietako literaturarekin. Euskal literatura hizkuntzaren arabera garatu zen, eta euskara bera izan da protagonista nagusia. Gainera, euskal literatura bitan banatuta dago geografiaren aldetik (Iparraldekoa eta hegoaldekoa). Eta azkenik, euskal literatura erlijioari atxekita dago, gaien aldetik nahiz idazleen aldetik. Ahozko euskal literaturaren esparrua zabala eta oso aberatsa da. Literatura idatziak eta landuak, oster, gizarte eragin txikia izan du euskal arimaren barruan. Zorionez, gaur egun, ikuspegi beltz hau baztertuaz batera, etorkizun itxaropentsu bat nagusituz doa, olerkian zein elaberrian goi maila iristen ari diren idazle gazteak ikusita.

SANCHO EL SABIO KOADERNOAK

Liburu ilustratu, eskurakor eta erabilgarriak, Euskal Herriko gaur egungo eta bere historian eragin handia izan duten ikuspegi historiko eta kulturalaren ikerketa orokorra biltzen dutenak.

